

Euskal Herriko Unibertsitatea
Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea - Gasteiz (Araba)
Gizarte Langintza Gradua

GIZARTE ZERBITZU ESPEZIALIZATUAK ARABAN: GENERO INDARKERIAREN BIKTIMAK

Irakasgaia: **Gizarte Zerbitzu Espezializatuak**
Irakaslea: **Eguzki Urteaga Olano**

EGILEA: Idoia Torrente Armentia
[Bide ez-jarraia]

2021eko abenduaren 22a, asteartea

AURKIBIDEA

<u>Sarrera</u>	3
1. Gaiaren delimitazioa	3
2. Gaiaren garrantzia	3
3. Kontzeptu nagusien definizioa	4
4. Problematika	5
5. Hipotesi nagusiak	5
6. Metodologia	5
1. Kapitulua: <u>Diagnostikoa</u>	6
2. Kapitulua: <u>Legedia</u>	14
2.1. Nazioarteko legeak	14
2.2. Europako legeak	15
2.3. Espainiako legeak	15
2.4. EAeko legeak	17
2.5. Arabako legeak	18
3. Kapitulua: <u>Gizarte Politikak (Planak, programak eta proiektuak)</u>	19
4. Kapitulua: <u>Gizarte Zerbitzu Espezializatuak</u>	23
5. Kapitulua: <u>Gizarte Langileak egiten duten lana</u>	25
6. Kapitulua: <u>Erabiltzailearen profila</u>	26
7. Kapitulua: <u>Ebaluaketa</u>	27
8. Kapitulua: <u>Gomendioak</u>	28
9. Kapitulua: <u>Konklusioak</u>	30
10. Kapitulua: <u>Bibliografia</u>	31
11. Kapitulua: <u>Eranskinak</u>	33
11.1. Elkarrizketaren transkripzioa	

Sarrera

1. Gaiaren delitimazioa

Txosten honen bitartez, Gizarte Zerbitzu Espezializatuek Araban genero indarkeriaren biktima diren erabiltzaileekin egiten duten lana aztertuko dut. Horretarako, informazioa jasotzeko baliabide ezberdinak erabiltzen.

Arabako genero indarkeriaren biktimak direnekin edo izan direnekin egiten den lana aztertzeko aztergaiaren esparru ezberdinak aztertuko ditut.

Hasiera batean, gaiaren inguruko nondik norakoak azalduko ditut, honen garrantzia, kontzeptu nagusien definizioa, problematika, hipotesi nagusia eta metodologia azalduz. Jarraiki, diagnostikoan murgilduko naiz. Bestalde, zenbait eremuetako legedia aipatuko dut, nazioartetik Arabaraino. Horrez gain, gizarte politikak azalduko ditut. Beste alde batetik, Gizarte Zerbitzu Espezializatuetan sakonduko dut. Hari beretik, genero indarkerien biktimen profilararen inguruan hitz egingo dut. Bukatzeko, ebaluaketa, gomendioak eta konklusioa plazaratuko ditut.

Laburbilduz, aztergai dudako esparruan ematen diren problematikak eta honen aurrean dauden esku-hartzeko motak azalduko ditut. Honela, gaiaren inguruko hausnarketa sakon bat eginez.

2. Gaiaren garrantzia

Genero Indarkeriaren gaiak egungo gizartearen garrantzi handia daukela pentsatzen dut, egunegun gaiare inguruko hamarnaka albiste ikus baititzaizkegu. Indarkeria matxistaren biktimak ugariak dira oraindik, horren adierazle da, aurtengo, Euskal Herrian 5 erailketa matxista egon izana, horietatik bat Gasteizen. Horrez gain, Emakundek 2020. urtean egindako ikerketa baten arabera, urte horretan Araban emakumeen kontrako indarkeriak eragindako biktimizazioak 763 izan ziren eta 628 emakume dira indarkeriaren biktima; aipatu beharra da, datu hauek jasotako salaketan araberakoak direla, beraz kontuan izan behar dugu, oraindik ere kasu gehiago egongo direla, salatzen ez duten emakumeak baitaude.

Gainera, aipatzekoa da ere, genero indarkeriaren biktima direnak arlo honetan pandemiaren ondorioak ere sufritu behar izan dituztela. Batik batik, haien erasotzailearekin konfinamendua pasatzera derrigortuak egonda, salaketak aurrera eramateko oztopoak izanda edo gizarte zerbitzuetara gerturatzeko zailtasun gehiago izanez. Adibide bezala, Emakunderen datuetan 2019 urtetik 2020 urtera martxoaren 16tik 31ra genero indarkeriak eragindako emakumeen biktimizazioetan egondako datuen aldaketa daukagu, konfinamendua egon ez zen urtean Araban 35 salaketa eman ziren, konfinamendurekin aldez, 16; argi dago datu hauen arteko aldea ez dagoela indarkeria matxistaren kasuen gutxitze batean, honi aurre egiteko gaitasunen gutxitzean baizik.

Gaiak duen garrantziarekin amaitzeko, gizarte zerbitzuek arlo honetan jokatzeko duten paper garrantzitsua azpimarratu nahiko nuke. Gizarte zerbitzuen bitartez, prebentziorako eta erasoan aurrean biktimak babesteko tresnak garatzeko aukera ematen da, hortaz, esparru honetan dauden indarguneak eta ahulezi edo gabeziak identifikatzea beharrezkoa da. Are gehiago, esan bezala, Covid-19 birusaren hedapenak eta hari beretik, krisiak, sortu duten egoera ezegonkor honen aurrean.

3. Kontzeptu nagusien definizioa

Genero indarkeriaren biktimen aztergaia Gizarte Zerbitzu Espezializatuetatik aztertzeko, lehenik eta behin, hainbat kontzeptu nagusi definitzeko beharra ikusi dut. Hortaz, (1) Gizarte Zerbitzu Espezializatuak, (2) bortizkeria zuzena, kulturala eta estrukturala, (3) genero problematika eta (4) indarkeria matxista definituko ditut.

Hasteko, **(1) Gizarte Zerbitzu Espezializatu**en kontzeptuaren definizioa ulertzea beharrezkoa dela deritzot. Gizarte Zerbitzuen barnean kokatzen den esparrua da, asetu gabe gelditzen diren giza-beharrizanez arduratzea da bere egitekoa. Norbanako, talde edo kolektiboek aipatueiko beharrizan horiek asetzeko gaitasun nahikorik ez dutenean, gizarte eredu honetan, ohikoa baita beharrizan hauek gertuko bitartez asetzea, gehien bat, familia-nukleoagatik, gizarte zerbitzuetara jo behar dute.

Gizarte-zerbitzuek gabezi edo beharrak aurreikustea, hauek jasaten dituztenak birgaitzea edota beharrezkoa den kasuetan, laguntza zuzena ematea da. Hortaz, gizarte-zerbitzuek Estatuan paper garrantzitsu bat jokatzeko dutela esan dezakegu, gizarte-arazoei aurre egiteko modu formal eta eratuak baitira.

Lan esparru hau hainbat formatan eraman daiteke aurrera, modu boluntarioan, ordaindu beharreko zerbitzuen bitartez, hau da, pribatuak, edo doako zerbitzuen bitartez, hau da, publikoak.

Genero indarkeriaz aritzeko, beharrezkoa da, egungo gizarte ereduan, Galtungen (2003) aburuz, bereizten diren hiru bortxakeria motak ezagutzea: estrukturala, kulturala eta zuzena. Lehenik, **(2.1) bortizkeria zuzenaren** definizioa azalduko dut, genero indarkeria honen espresio moduan identifikatzen baitut. Bortxakeria zuzena, ikusgaia den indarkeria mota da, batik bat, hilketa matxistak, bortxaketak eta abusu sexualak. Bestalde, **(2.2) bortizkeria kulturala** eta **(2.3) estrukturala** ditugu ikusezinak direnak, lehenengoaren bitartez, bortizkeriaren normalizazioa eragiten da, eta bigarrena, gizartearen oinarrian dago, goi klaseek behe klaseei ezartzen dieten bortizkeria da, hain zuzen ere.

Behin Gizarte Zerbitzu Espezializatuak eta bortizkeria mota ezberdinak ulertuta, genero problematikaz eta batez ere, indarkeria matxistaz arituko naiz. Batetik, genero zapalkuntzaren definizioa emanez eta bestetik, indarkeria matxistaren kontzeptua azalduz.

Alde batetik, bortizkeria matxistaren erroa ezagutzea ezinbestekoa da, horretarako, **(3) genero problematikaren** kontzeptua ulertzea, honek barnebiltzen du finean haren egituran aipatutakoa. Horretarako, ITAIA (2019) antolakundeak *Salda Badago Euskal Herriko Jardunaldi Feministetan* exposatutako ponentzian ematen duen azalpena erabiliko dut. Aurreko formazio sozialetan historikoki, emakumearenganako gutxiespen sozial, politiko eta ekonomikoak eman dira, hau oinarri hartuta, egun bizi garen gizarte kapitalistak, haren mesedetara txertatu du ordenu sozial hau haren egituran, emakume langileak subjektu debalutu bezala txertatuz, honela botere burgesaren indartze eta elikatze bat lortuz. Honela, genero zapalkuntzaren espresio ezberdinak ematen dira: kultura matxista, lan banaketa sexuala...

Kontzeptu nagusien definizioarekin amaitzeko, txostenaren gakoa den **(4) indarkeria matxista** kontzeptua azalduko dut, horretarako, Osasunaren Mundu Erakundeak (OMU) erabiltzen duen definizioa aipatuz. Genero biolentzia, emakumeen sexu pertenezian oinarritutako indarkeria-ekintza orok osatzen du, izan, fisiko, sexual edota psikologikoa, bai esparru pribatuan bai esparru publikoan eman daitezkeenak.

4. Problematika

Ideologia feministaren inguruan historian inoiz hitz egin den momentu gorenean gaudela dirudien arren, indarkeria matxistak aurrera jarraitzen du. Hausnarketa luzea ekar dezake aipatutakoak, eta horregatik, indarkeria matxista gizarte ereduaren oinarrian dagoen zapalkuntza moduan ulertu behar dugu, honela, analisi sakon bat burutu ahal izateko eta irtenbide edo aukera errealak planteatzea posible izan dadin. Horrez gain, egoera honi aurre egiteko instituzioek planteatzen dituzten politika eta zerbitzuak aztertzea ezinbestekoa da, hauei analisi eta ekarpen kritiko bat egiterako bidean.

5. Hipotesi nagusiak

Nire hipotesi nagusia oraindik ere genero indarkeriko biktimei bideratutako gizarte zerbitzuetan garapen bat eman behar dela da. Nire iritziz, egun, gizarte zerbitzuak prebentzio lan sakon bat egitetik urrun daude oraindik eta erasoak behin gertatuta burutu behar den lanari dagokionean, gabezia handiak dituzte emakumei babessa eskaintzeko garaian.

6. Metodologia

Arabako Gizarte Zerbitzu Espezializatuen, zehazki, genero indarkeriko biktimei bideratutako zerbitzuen, inguruko txosten hau burutzeko, hiru baliabide nagusi erabili ditut: (1) informazio iturri anitzak, (2) lan dokumentala eta (3) elkarrizketa.

(1) Informazio iturri ezberdinen bitartez, txostena osatzeko aukera izan dut, batik bat, legedia edo kontzeptu nagusien definizioa. Zentzu honetan, beharrezkoa ikusten dut informazio iturriak bilatzerako garaian aniztasuna egotea, honela ikuspuntu eta hausnarketa

gehiago jasotzeko aukera egongo baita. Horrez gain, Foru Aldundiak eskaintzen dituen zerbitzuak ezagutzeko, honen orrialde eta eskaintzen dituen iturri ofizialak erabiltzea beharrezkoa dela deritzot.

Hari beretik, **(2) lan dokumental** ezberdina jasotzea beharrezkoa ikusi dut, honela, informazio gehiago eskuratzeko aukera dagoelako. Horretarako, batik bat, datu, grafiko zein diagramak erabiltzea beharrezkoa ikusi dut.

Bukatzeko, Foru Aldundian lanean dabilen gizarte-langile batekin izandako **(3) elkarrizketa** erabili dut. Aipatzekoa iruditzen zait, nire ustez, hau baliagarri izan zaidan tresna izan dela, gainera, esperientzia oso aberasgarri bezala ikusi dut, bai proiektu hau burutzeko bai oro har, Gizarte Langintzako Graduan ematen den ikasketa prozesurako.

1. Kapituluak: Diagnostikoa

Emakumearen aurkako indarkeriaren inguruko diagnostikoa burutzeko, baliabide ezberdinak erabiliko ditut, batez ere, Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeak eskaintzen dituen datuetaz baliatuz.

Diagnostiko sakonago bat burutzeko, oro har, ez ditut 2021.urteko datuak erabiliko, gehien bat, indarrean dagoen urtea izanda oraindik ere informazio ugari publikatzeko falta da, diagnostikoa hurrengo urtean egiten dutelako.


Horregatik, batez ere, 2019 eta 2020 urteetako datuak erabiliko ditut. Kontuan izan behar dugu, bi urte hauek Covid-19 birusaren hedapenarekin etorritako pandemiak baldintzatuak egon direla, aurretik aipatu dudak bezala, honek eragin zuzena izan du indarkeria matxistaren auzian, batik bat, konfinamenduagatik, zenbait neurri murriztatzaileengatik...

Honela, genero indarkeriaren biktimen arazoak ze dimentsio duen modu argi batean ikusiko dugu, esaterako, biktima kopurua ezagutuz edota indakeria mota esanguratsuenak identifikatuz.

Lehenik eta behin, irakurketa orokorrago bat burutuko dut, (1) Euskal Autonomia Erkidegoko datuak analizatuz. Ondoren, (2) Arabako lurraldea sakonago analizatuko dut, bertan ikuspegi sakonago bat izateko. Amaitzeko, (3) espainiar estatuko zenbait datu eskainiko ditut, analisiari ekarpena egin diezaioketelakoan.

1. Grafikoa

Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak, lurralde historikoaren arabera. Absolutuak eta %. EAE, 2019






Iturria: *Emakunde. Emakumearen Euskal Erakundea*

(1) Euskal Autonomia Erkidegoan 2019 egondako datuei erreparatuz gero eta hau lurraldeka aztertuta, Araban emakumeen biktima kopurua Bizkaia eta Gipuzkoan baino bajuagoa da, hala ere, aipatzekoa da, hazkunderik handiena jasan duen lurraldea izan dela %7,98arekin.

1. Taula

Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak eta biktimizazioak, indarkeria motaren arabera. Absolutuak eta%. EAE, 2019

2019	5.518 indarkeria-kasuak	4.419 emakume
 Bikotekide edo bikotekide ohiaren indarkeria	4.086 kasu %74	3.098 emakume %70,1
 Familia barruko indarkeria	1.008 kasu %18,3	899 emakume %20,3
 Sexu-indarkeria	424 emakume %7,7	422 emakume %9,6

Iturria: *Emakunde. Emakumearen Euskal Erakundea*

Euskal Autonomia Erkidegoko datuekin jarraituz, taula honetan 2019.urtean 5.518 indarkeria-kasu egon zirela ikus dezakegu, horietatik 4.419 emakumeenganakoa izanda. Horrez gain, hiru indarkeria-mota bereizten dira, (1) bikotekide edo bikotekide ohiak egindaoa, (2) familia barruan egindakoa eta (3) sexu indarkeria; nabarmenki ikus daiteke, (1) bikotekide edo bikotekide ohiaren partetik ematen den indarkeria kantitatez handiena dela,

3.098 emakumerekin, hau da, %70,1. Bestalde, (2) familia barruko indarkeriari dagokionean, 899 kasu eman ziren, %20,3a hain zuzen ere. Azkenik, (3) sexu-indarkeria kasuak zenbakiz bajuenak izanda ere, datu esanguratsuak dira, 422 kasurekin, hau da, %9,6a.

Aipatzekoa da ere, 2018 urtearekin alderatuta biktimizazio kopuruak gora egin duela, “Indarkeriaren biktima diren emakumeen kopuruak eta biktimizazioenak gora egin dute 2018ko datuekin alderatuta. Zehazki, biktima diren emakumeen kopurua % 4,12 hazi da: 2018an 4.244 ziren, eta urtebete geroago, 4.419. Biktimizazioei dagokienez, igoera % 3,82koa izan da, 2018ko 5.315etik 2019ko 5.518ra.” (Emakunde, 2019)

2. Taula

Emakumeen aurkako indarkeriaren biktima diren emakumeak, adinaren arabera. Emaizta orokorrak eta erasotzaile motaren arabera. % EAE, 2019

	Guztira	Bikote/Bikote ohia	Familia barrukoa	Sexu askatasuna
18 urtetik beherakoa	%10,6	%2,2	%26,3	%38,6
18-30 urte bitartekoa	%28,1	%31,5	%13,5	%34,4
31-50 urte bitartekoa	%47,2	%56,8	%25,9	%21,8
50 urtetik gorakoa	%14,1	%9,4	%34,4	%5,0
Adin ezezaguna	%0,05	%0,03	-	%0,2
Guztira	100	100	100	100

Iturria: *Emakunde. Emakumearen Euskal Erakundea*

Taula honetan, adinen araberako datuak bereizten dira, gazteenetatik (18 urtetik beherakoak) heldueneetara (50 urtetik gorakoak). Honen bidez ikus dezakegu, nolabaiteko lotura dagoela emakumearen adinaren eta jasaten duten indarkeria motaren artean.

Modu honetan, bikotekideen edo bikotekide ohien biktima diren emakumeen %56,8k 31 eta 50 urte bitartean ditu, eta %88,3k 18 eta 50 urte bitartean. Horrez gain, ohikoagoa da familia barruko indarkeria jasaten duten emakumeak 50 urtetik gorakoak izatea, %34,4a, edo adingabeak % 26,3a, hain zuzen ere. Gainera, zehaztu behar da emakume gazteenak direla familiaratik kanpo eragindako sexuindarkeriaren biktima nagusiak: indarkeria-mota horren biktimen %38,6 adingabeak dira, eta %73 30 urtetik beherakoak.

Beste alde batetik, genero indarkeriaren aurpegi gordinena erakusten duten erailketa matxistak ditugu. Hau aztertzeke, 2002 urtetik 2020 urtera Euskal Autonomia Erkidegoan egondako hilketak plazaratuko ditut.

3. Taula

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ONDORIOZ ERAILDAKO EMAKUMEAK. 2002 - 2020 urteak

URTEA	HILABETEA	DATA	UDALERRIA	LURRALDEA	ADINA	JAIOTERRIA	EGILEAREKIKO HARREMANA	BIZIKIDETZA
2002	ABUZTUA	2002/8/23	BASAURI	BIZKAIA	33	BILBAO	BIKOTEA	Bai
2004	OTSAILA	2004/2/3	BILBAO	BIZKAIA	33	NIGERIA	BIKOTEA	Bai
	IRAILA	2004/9/27	BILBAO	BIZKAIA	27	GUINEA BISSAU	BIKOTE OHIA	Bai
	URRIA	2004/10/10	BARAKALDO	BIZKAIA	34	BARAKALDO	ARREBA	Ez
2004	AZAROA	2004/11/23	SANTURTZI	BIZKAIA	16	BARCELONA	BIKOTE OHIA	Bai
	ABENDUA	2004/12/12	BASAURI	BIZKAIA	54	BURGOS	BIKOTE OHIA	Ez
	URTARRILA	2005/1/15	DURANGO	BIZKAIA	32	GUATEMALA	BIKOTE OHIA	Ez
2005	URRIA	2005/1/04	BILBAO	BIZKAIA	68	VALLADOLID	AMA	Bai
	URRIA	2005/10/12	BARAKALDO	BIZKAIA	38	EIBAR	BIKOTEA	Bai
	URRIA	2005/10/15	BAKIO	BIZKAIA	26	BARAKALDO	BIKOTE OHIA	Ez
2006	MAIATZA	2006/5/28	BARAKALDO	BIZKAIA	39	BILBAO	BIKOTEA	Bai
	UZTAILA	2006/7/3	BASAURI	BIZKAIA	23	RUMANIA	BIKOTEA	Bai
	UZTAILA	2006/7/7	GETXO	BIZKAIA	87	CANTABRIA	AMA	Bai
2007	ABUZTUA	2006/8/6	VITORIA-GASTEIZ	ARABA	76	VITORIA-GASTEIZ	AMAGINARREBA	Ez
	MARTXOA	2007/3/23	BILBAO	BIZKAIA	74	CANTABRIA	BIKOTEA	Bai
	EKAINA	2007/6/2	VITORIA-GASTEIZ	ARABA	35	VITORIA-GASTEIZ	BIKOTEA	Bai
2008	ABENDUA	2007/12/13	ETXEBARRI DONEYZTEBEO ELIZATEA/ETXEBARRI	BIZKAIA	80	PONTEVEDRA	AMONA	Ez
	ABUZTUA	2008/8/15	BAÑOS DE EBRO/MAÑUETA	ARABA	72	BAÑOS DE EBRO/MAÑUETA	BIKOTEA	Bai
	URRIA	2008/1/05	SANTURTZI	BIZKAIA	26	NIGERIA	BIKOTEA	Bai
2009	ABENDUA	2008/12/29	ERRENTERIA	GIPUZKOA	35	VENEZUELA	BIKOTEA	Bai
	MARTXOA	2009/3/23	GERNIKA-LUMO	BIZKAIA	44	TOLOSA	BIKOTEA	Bai
	MAIATZA	2009/5/9	IRULIN	GIPUZKOA	37	KOLONBIA	BIKOTE OHIA	Ez
2010	URTARRILA	2010/1/17	TOLOSA	GIPUZKOA	45	PONTEVEDRA	BESTE SENIDE BAT	Bai
	URTARRILA	2010/2/8	BARAKALDO	BIZKAIA	65	SALAMANCA	AMA	Bai
	OTSAILA	2010/2/19	LASARTE-ORIA	GIPUZKOA	48	BADAJOS	AMA	Ez
2011	UZTAILA	2010/7/25	BILBAO	BIZKAIA	36	BILBAO	BIKOTEA	Bai
	ABENDUA	2010/12/8	BARAKALDO	BIZKAIA	25	BARAKALDO	BIKOTE OHIA	Ez
	UZTAILA	2011/7/3	HERNANI	GIPUZKOA	55	LA RINCONADA (SEVILLA)	BIKOTEA	Ez
2012	ABUZTUA	2011/8/22	BILBAO	BIZKAIA	36	ECLADOR	BIKOTEA	Ez
	MARTXOA	2012/3/25	TOLOSA	GIPUZKOA	39	CUBA	BIKOTEA	Bai
	AZAROA	2012/11/27	ASPARRENA	ARABA	65	ASPARRENA	BIKOTEA	Bai
2013	MAIATZA	2013/5/23	LAUDIOLLODIO	ARABA	26	OROZKO	BIKOTEA	Bai
	MARTXOA	2014/3/17	MUNGA	BIZKAIA	35	BRASIL	BIKOTE OHIA	Ez
	ABENDUA	2014/12/10	ABADIÑO	BIZKAIA	58	VALENCIA	BIKOTEA	Bai
2015	ABENDUA	2014/12/10	ABADIÑO	BIZKAIA	88	VERTABILLO (PALENCIA)	BESTE SENIDE BAT	Ez
	APRILA	2015/4/2	VITORIA-GASTEIZ	ARABA	29	RUMANIA	BIKOTEA	Bai
	ABUZTUA	2015/8/8	BILBAO	BIZKAIA	34	BILBAO	BIKOTE OHIA	Ez
2016	URRIA	2015/1/05	ERANDIO	BIZKAIA	39	BILBAO	BIKOTE OHIA	Ez
	UZTAILA	2016/7/23	BILBAO	BIZKAIA	51	BARAKALDO	BIKOTEA	Ez
	URTARRILA	2017/1/10	PORTUGALETE	BIZKAIA	92	GUNTIN (LUGO)	AMA	Bai
2017	IRAILA	2017/9/28	SESTAO	BIZKAIA	32	PARAGUAY	BIKOTEA	Bai
	APRILA	2018/4/20	VITORIA-GASTEIZ	ARABA	43	VITORIA-GASTEIZ	SENAR OHIA	Ez
	APRILA	2018/4/20	VITORIA-GASTEIZ	ARABA	69	BAÑAS DEL CASTILLO (CACERES)	BESTE SENIDE BAT	Ez
2018	IRAILA	2018/9/25	BILBAO	BIZKAIA	25	SENEGAL	SENARRA	Bai
	MARTXOA	2020/3/11	ABANTO Y CIERVANA/ABANTO ZIERBENA	BIZKAIA	56	ESPANIA	SENARRA	Bai
	MARTXOA	2020/3/11	ABANTO Y CIERVANA/ABANTO ZIERBENA	BIZKAIA	24	ESPANIA	ALABA	Bai
2020	MARTXOA	2020/3/16	SORALUZE-PLACENCIA DE LAS ARMAS	GIPUZKOA	74	VILLARRIN DE CAMPOS (ZAMORA)	AMA	Bai

Dir. Coordinación de Seguridad. Div. Estudios y Análisis 05/03/2021

Iturria: *Emakunde. Emakumearen Euskal Erakundea*

Taula honen bitartez, urtez urte egondako erailketa matxistak azter ditzakegu. Aipatzen diren hainbat faktore azpimarratzea beharrezkoa ikusi dut. Lehenik eta behin, lurraldeari dagokionean, Bizkaia nabarmentzen dela agerikoa da, hala ere, Arabako emakume erail kopurua ere handia da, horietatik, gehiengo, hiriburuan, Gasteizen, ematen delarik. Horrez gain, adin-tarteari dagokionean, aniztasun nahikoa dagola esan dezakegu, 24 urtetatik 74 urtetaraino, hala ere, 30-50 urte tartea nabarmentzen dena dela deritzot. Hirugarrenik, erasoaren egilearekiko harremanari erreparatuz gero, gehien bat bikotekide edota senarra izan direla ikus daiteke, hala ere, familiako beste hainbat kide ere badaude, esaterako, alaba, ama edota amaginarreba. Bukatzeko, bizikidetzari dagokionean, kasu gehienetan elkarrekin bizi zirela ikusi dezakegu, baina beste hainbat kasuetan, ez zen horrela.

Behin Euskal Autonomia Erkidegoko datuei erreparatu ondoren, **(2) Arabako** datuak modu sakonagoan analizatuko ditut, bereziki, 2019 eta 2020 urteak aztertuz.

4. Taula

5. Taula

EAEn EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAK ERAGINDAKO BIKTIMIZAZIOAK.
2019 (URTARRILA - ABENDUA) - 2020 (URTARRILA - ABENDUA)

	LURRALDEA											
	ARABA			BIZKAIA			GIPUZKOA			GUZTIRA		
	19	20	Δ	19	20	Δ	19	20	Δ	19	20	Δ
BIKOTEAK/BIKOTE OHIAK BURUTUTAKO INDARKERIA	625	557	-10,88	2.230	2.135	-4,26	1.231	1.122	-8,85	4.086	3.814	-6,66
FAMILIA BARRUKO INDARKERIA (BIKOTEAK EDO BIKOTE OHIAK BURUTAKOA IZAN EZIK)	166	147	-11,45	524	654	24,81	318	314	-1,26	1.008	1.115	10,62
SEXU-ASKATASUNA	55	59	7,27	235	172	-26,81	134	116	-13,43	424	347	-18,16
GUZTIRA	846	763	-9,81	2.989	2.961	-0,94	1.683	1.552	-7,78	5.518	5.276	-4,39

EAEn INDARKERIAREN BIKTIMAK DIREN EMAKUMEAK
2019 (URTARRILA - ABENDUA) - 2020 (URTARRILA - ABENDUA)

	LURRALDEA											
	ARABA			BIZKAIA			GIPUZKOA			GUZTIRA		
	19	20	Δ	19	20	Δ	19	20	Δ	19	20	Δ
BIKOTEAK/BIKOTE OHIAK BURUTUTAKO INDARKERIA	501	448	-10,58	1.659	1.589	-4,22	938	855	-8,85	3.098	2.892	-6,65
FAMILIA BARRUKO INDARKERIA (BIKOTEAK EDO BIKOTE OHIAK BURUTAKOA IZAN EZIK)	148	123	-16,89	480	554	15,42	271	270	-0,37	899	947	5,34
SEXU-ASKATASUNA	55	57	3,64	233	168	-27,90	134	113	-15,67	422	338	-19,91
GUZTIRA	704	628	-10,80	2.372	2.311	-2,57	1.343	1.238	-7,82	4.419	4.177	-5,48

Iturria: Segurtasun Saila. Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza. Ikerketa eta Azterketa Arloa
Sexu askatasunak bere gain hartzen ditu Zigor Kodean horrela tipifikatutako delitua, familia eremutik kanpoko egileek eginda.

Iturria: Segurtasun Saila. Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza. Ikerketa eta Azterketa Arloa

Taula honetan Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde guztien datuak baditugu ere, txosten honen bidez gizarte zerbitzu espezializatuak arabar egiten duten lana aztertuko dudanez, Arabako datuei soilik erreparatuko diet.

Lehenengo taulan, genero indarkeriak eragindako biktimizazioak (2019-2020) ikusgai daude. Hasteko, 2019 urtetik 2020 urtera beherakada nabarmen bat (-9,81) egon dela agerikoa da, lehenengo urtean 846 biktimizazio eman ziren eta hurrengo urtean 763. Hala ere, beherakada hau ez da hiru esparruetan (bikotekideak edo bikotekide ohiak burututako indarkeria, familia barruko indarkeria eta sexu-indarkeria) eman, sexu-indarkerian gorakada eman baita, 55 kasutik 59 kasura. Horrez gain, gainerakoetan beherakada bat eman badela ere, datuak oraindik ere esanguratsuak direla deritzot, bikotekide edo bikotekide ohiaren partetik jasaten den indarkerian 625 biktimizaziotik 557ra pasa da, eta familia barruko indarkerian, 166 biktimizaziotik 147ra.

Bigarren taulan, indarkeriaren biktima izan diren emakumeen (2019-2020) datuak jasotzen dira. Kasu honetan ere, orokorrean beherakada bat eman dela esan dezakegu, 704 kasutik 628 kasura jaitsiz, -10,80arekin. Hala ere, aurretik aipatu moduan, sexu-indarkeriari erreparatuz gero, kontrakoa eman da, 55 kasutik 57 kasura igo baita. Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragiten duen indarkeriari dagokionean, 501 kasutik 448 kasura jaitsi da. Azkenik, familia barruan gertatzen den indarkeriari erreparatuz gero, 148 kasutik 123 kasura pasa da.

6. Taula

Todos los datos de la Violencia de Género por territorio

Número de víctimas, relación con el agresor, denuncias...

Busca una provincia

Español Extranjero

Provincia	Nº Total de Víctimas	Nacionalidad del Agresor	Agresor (no consta nac.)	Agresor no se suicidó	Agresor se suicidó	Tentativa de suicidio no consumada	Convivió con su agresor	No convivió con su agresor	No consta convivencia	No había denuncia	Había denuncia	De oficio	No consta denuncia	Menores Huérfanos	Víctima Española	Víctima de otro país	No consta nac. Víctima	Expa
Bizkaia	24	18 Español, 5 Extranjero	1	17	3	4	14	9	1	11	6	0	7	6	15	7	2	6
Araba/Álava	9	7 Español, 2 Extranjero		5	2	2	7	2	0	8	1	0	0	9	7	2	0	2
Gipuzkoa	5	2 Español, 3 Extranjero		4	0	1	3	2	0	3	2	0	0	0	2	3	0	1
Euskadi	38	27 Español, 10 Extranjero	1	26	5	7	24	13	1	22	9	0	7	15	24	12	2	5


Datos: Delegación del Gobierno contra la Violencia de Género
Actualizado a 8 de nov. de 2021

Iturria: Gobernuko Indarkeria Matxistaren Aurkako Delegaritza

Arabako informazioarekin amaitzeko, 2003 urtetik egondako erailketa matxistak irudikatzen dituen taula da hau. Datu esanguratsua iruditzen baitzait, 9 emakume hil izana Araban erailketa matxista dela medio. Gainera, aipatzekoa iruditzen zait, atzerritar eta espainiarraren artean egiten duten desberdintze nagusia, honen arrazoia identifikatzea kostatzen baitzait, hau, gehien bat, arrazakeriarekin lotuko nuke.

Amaitzeko, (3) **espainiar estatuan** emandako zenbait datu plazaratzea beharrezkoa ikusten dut. Gehien bat, ikuspegi orokorrago bat eskaintzera begira, eta beste alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoak maila honetan aztertuz nola kokatu behar dugun ezagutzeko.


2. Grafikoa



Iturria: *Gobernuko Indarkeria Matxistaren Aurkako Delegaritza*

Grafiko honen bidez, espainiar estatuko probintzia ezberdinetan emandako erailketa matxista kopuruak (datu ofizialak daudenetik) ikusi ditzakegu. Azpimarragarria iruditzen zait, Euskal Autonomia Erkidegoa 10.postuan kokatzen dela, 38 erailketa matxista egonik bertan; lehen postuan dagoenarekiko, Andalucia 225 kasurekin, urruntasun handia dagoela agerikoa den arren, aipatzekoa da ere, azkeneko postuan dagoenarekiko, Ceuta 2 kasurekin.

3. Grafikoa




Iturria: *Gobernuko Indarkeria Matxistaren Aurkako Delegaritza*

016 zenbakira (Indarkeria Matxistaren Aurkako Telefonoa) 2007 urtetik 2021 urtera egin izan diren deiak jasotzea beharrezkoa ikusi dut, askotan salaketak egitera iritsi ez arren emakume askok deitu egiten dutelako. Agerikoa da aipatutako hau grafikoan ikusten diren kopuruetan. Horrez gain, grafikoaren gainean egiten den bereizketari erreparatzea ere beharrezkoa da, 016 zenbakira deia nork egin ahal duen erakusten baitu: erabiltzaileak, familiak edo inguruko pertsonaren batek edo beste norbaitek, adibidez, bizilagun batek.


Horrez gain, aipatzekoa iruditzen zait 2008 urtetik 2021 urteraino, dei kopurua antzekoa izan dela 1.400-1.900 bitarte. Hala ere, 2015 eta 2016 urteetan bereziki, kopuruan igoera nabarmen bat ikusi dezakegu eta 2007an zenbakiak nabarmenki txikiak direla antzematen da, 426 dei kopuru egonda. Batez ere azpimarratzekoa da 2007 urtetik 2008ra egondako kopuru igoera, honen jatorria zuzenean ezagutzen ez badut ere, 2007.urtean 016 zenbakiarekiko egon zitzakeen ezjakintasunarekin lotzen dut.

4. Grafikoa



Iturria: *Gobernuko Indarkeria Matxistaren Aurkako Delegaritza*

5. Grafikoa



Iturria: *Gobernuko Indarkeria Matxistaren Aurkako Delegaritza*

Azken bi grafiko hauen bitartez, espainiar estatuan probintzia bakoitzean jarraipena egiteko gailuan eta babeserako ordenetan dagoen intentsitatea ikusi dezakegu. Orokorrean probintzia gehienetan bi esparru hauetan intentsitate baxuarekin lan egiten dela agerian gelditzen da, hauen barruan kokatuz Euskal Autonomia Erkidegoa. Kontrara, Madrilen intentsidade handiko lana egiten dela esan daiteke eta hegoaldean ere intentsidade nahiko dagoela antzematen da.

Datu hauek analizatzean, eta batez ere, aurrekoak kontuan izanda, indarkeria matxistaren inguruan dauden biktima kopurua handia izanda, honi aurre egiteko nahikoa lan-tresna ez daudela da ondorioztatzen dudana.

2. Kapituluak: Legedia

2.1. Nazioarteko legeak

Nazio Batuek Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean, genero indarkeria, printzipioen urraketa nabarmen bezala identifikatzen da. Aipatutako hau hurrengo artikuluen bitartez egikaritzen dute, besteak beste:

- ❖ **3.Artikulua**→Emakumeen aurkako indarkeria norberaren bizitzarako, askatasunerako eta segurtasunerako eskubidearen urraketa da.
- ❖ **5.Artikulua**→Emakumeen aurkako indarkeria torturarik edo zigor edo tratu krudel, anker edo apalesgarririk ez jasateko eskubidearen urraketa da.
- ❖ **7.Artikulua**→Emakumeen aurkako indarkeria legearen aurreko berdintasuna eta legearen babes bera izateko eskubidearen urraketa da.
- ❖ **8.Artikulua eta 10.Artikulua**→Emakumeen aurkako indarkeria auzitegi inpartzial batera jotzeko eskubidearen urraketa da.
- ❖ **13.Artikulua**→Emakumeen aurkako indarkeria askatasunez zirkulatzeko eskubidearen urraketa da.
- ❖ **20.Artikulua**→ Emakumeen aurkako indarkeria Biltzeko eta elkartzeko askatasunaren eskubide urraketa da.

2.2. Europako legeak

Europako legez jarduteko, oro har, Europako Parlamentu eta Kontseiluak egindako lana hartuko dut kontuan, Europako babeserako ordenuan oinarritzen dena. Horretarako, hainbat artikuluz baliatuko naiz:

- ❖ **1.Artikulua**→Europako Babesteko Aginduak (EBA) suposatzen du, estatu emaileko agintaritzak eskudunak bere barne-zuzenbideko prozesu-arauen arabera emandako neurri jakin batzuen ondoriozko babesa beste estatu kide batera zabaltzea (biktima beste estatu kide batera lekualdatu bada edo lekualdatu nahi badu), eta, horrela, beste estatu kide bateko lurraldean pertsona baten babesa mantentzea.
- ❖ **2.Artikulua**→EPE bat eskatzeko babes-neurri gisa ulertu behar da zigor-arloko ebazpen bat, estatu emailean hartutakoa bere legeriaren eta prozedura nazionalen arabera.
- ❖ **2,5.Artikulua**→OEP baten eskaera onartzeko baldintza gisa, alde aurretik estatu emailean babes-neurri bat hartzea eskatzen du, eta, bestetik, Zuzentarauko 5. Zuzentaru horretatik, babesteko Europako agindu bat eman ahal izango da, baldin eta estatu emailean alde aurretik babes-neurri bat hartu bada, eta neurri horrek arriskuaren eragileari bertan zerrendatzen diren debeku edo murrizketetako bat edo batzuk (...) ezartzen badizkio.
- ❖ **39.Artikulua**→Babes penalaren arrazoia, etxeko bizitzaren nukleoko — edo antzeko beste egoera batzuetako — pertsonen duintasuna babesteko eta, batez ere, familiari babesa emateko beharra, gure ordenamendu konstituzionalak aitortzen eta babesten duen erakunde bezala egikaritzen da jurisprudentzia.
- ❖ **173.3.Artikulua**→Egiaztatutako indarkeria-egintzek biktima dsberdinei eragiten badiete ere, autore batzuk delitu bakar batera murriztea justifikatzen da.

2.3. Espainiako legeak

Espainiako legez jarduteko, Espainiako Konstituziotik ateratako zenbait artikulua interesgarri baliatuko ditut, nire aburuz, ekarpena egin dezaketena:

- ❖ **6.Artikulua**→Gizonen eta emakumeen arteko benetako berdintasuna bermatzeko, Hezkuntza Administrazioak hezkuntza-material guztitik estereotipo sexista eta diskriminatorioak ezabatzea eta gizonezko eta emakumezkoen artean balio berdina

sustatuko duen materiala egotea bermatu beharko du.

- ❖ **22.Artikulua**→Espainiako Erresumako Enplegu Planaren esparruan, enplegu-eskatzaille gisa inskribatutako genero-indarkeriaren biktimentzako ekintza-programa espezifikoa bat sartuko da. Programa horrek norberaren konturako jarduera berri bat hasteko neurriak hartuko ditu.
- ❖ **24.Artikulua**→Genero-indarkeriaren biktima den funtzionarioak eskubidea izango du bere lanaldia murrizteko edo berrantolatzeke, lantokiaren mugigarritasun geografikorako eta eszedentziarako, bere legeria espezifikoa zehaztutako baldintzetan.
- ❖ **29.Artikulua**→1. Emakumearen aurkako Indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ordezkaritza Bereziak, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioari atxikita, Gobernuak genero-indarkeriaren inguruan garatu beharreko politika publikoak formulatuko ditu, eta arlo horretan egiten diren ekintza guztiak koordinatu eta bultzatuko ditu, arlo horretan eskumena duten administrazioekin lankidetzan eta koordinatuta lan eginez.
2. Emakumearen aurkako Indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ordezkaritza Bereziaren titularrak legitimazioa izango du jurisdikzio-organoen aurrean lege honetan babestutako eskubideen eta interesen defentsan esku hartzeko, gai horretan eskumenak dituzten administrazioekin lankidetzan eta koordinatuta.
3. Erregelamendu bidez zehaztuko dira Emakumearen aurkako Indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ordezkaritza Bereziaren titularraren maila eta eginkizun zehatzak.
- ❖ **33.Artikulua**→Zigor Kodearen 83. artikulua 1., 6. paragrafoaren bigarren lerroak, 15/2003 Lege Organikoak emandako idazkeran, idazkera hau izango du:
«Genero-indarkeriarekin zerikusia duten delituak badira, epaile edo auzitegiak betebeharrak betetzera baldintzatuko du etenaldia. Edo paragrafo honetako 1., 2. eta 5. erregelatan aurreikusitako betebeharrak.»
- ❖ **40.Artikulua**→Aldatu egiten da Zigor Kodearen 468. artikulua, eta honela idatzita geratzen da:
«1. Norbaitek bere kondena, segurtasun-neurria, espetxealdia, kautela-neurria, gidatzea edo zaintza urratzen badu, orduan, halakoei sei espetxealdi-zigorra ezarriko zaie. Hilabetetik urtebetera, askatasunik gabe badaude, eta hamabi hilabetetik hogeita lau hilabete arteko isunarekin, gainerako kasuetan.
2. Nolanahi ere, sei hilabetetik urtebete arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie kode honen 48. artikuluan ezarritako zigorretatik bat edo zigor bat urratzen dutenei. Prozesu kriminaletan ezarritako izaera bereko

kautela- edo segurtasun-neurria, baldin eta ofenditua pertsona horietakoren bat bada. 173.2 artikulua .»

- ❖ **59.Artikulua**→Prozedura Kriminalaren Legeari 15 bis artikulua gehitzen zaio. Hau da idazketa:

«Emakumearen aurkako indarkeriaren arloko epailearen instrukzioa edo ardura duten delitu edo faltetako batzuk badira, eskumena Biktimaren bizilekuaren tokiak zehaztuko du lurralde-eremua, hargatik eragotzi gabe babes-agindua edo 13. artikuluko premiazko neurriak hartzea. Egitateak gertatu diren lekuko epaileak eman dezakeen lege hau .»

2.4. EAEko legeak

Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dauden legeak aztertzeko, espainiar estatuko boletinetik lurralde honi dagokion hainbat artikulua erabiliko ditut:

- ❖ **1.Artikulua**→Lege honen xedea da emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan herri-aginteen jarduna gidatu behar duten printzipio orokorrak ezartzea, bai eta zenbait neurri arautzea ere, bizitzaren eremu guztietan emakumeen eta gizonen aukera- eta tratu-berdintasuna sustatzeko eta bermatzeko, eta, bereziki, emakumeen autonomia sustatzeko eta haien posizio sozial, ekonomiko eta politikoa indartzeko. Horren guztiaren azken helburua da berdintasunezko gizarte bat lortzea, non pertsona guztiak aske izango diren, esparru publikoan zein pribatuan, beren gaitasunak garatzeko. Pertsonalki eta erabakiak sexuaren araberako rol tradizionalak ezarritako mugarik gabe hartzea, eta emakumeen eta gizonen jokabide, jomuga eta beharrian desberdinak neurri berean kontuan hartu, baloratu eta sustatzea.
- ❖ **4.Artikulua**→1. Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideei dagokie emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko legegintza-eskumena, arauak garatzeko eskumena eta zuzeneko ekintza.
2. Lege honen ondorioetarako, zuzeneko ekintzatzat hartuko da interes orokorragatik edo baldintza tekniko, ekonomiko edo sozial espezifikoenatik Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde osoan modu bateratuan eman behar diren eginkizun, programa edo zerbitzuak betearazteko eskumena.
3. Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen zuzeneko ekintzari kalterik egin gabe, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko arauak betearaztea lurralde historikoetako foru-organoei eta toki-administrazioari dagokie, lege honetan eta lege hau garatzen duen araudian xedatutakoaren arabera.
- ❖ **23.Artikulua**→Euskal botere publiko guztiek sustatu behar dute beren zuzendaritza-organoak eratzeko edo horietako kide izateko pertsonak izendatu eta

izendatzerakoan, eta Elkargokideek trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izatea. Horretarako, beharrezkoak diren araugintza-neurriak edo bestelakoak hartuko dituzte.

- ❖ **30.Artikulua**→1. Debekatuta dago Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan testuliburuak eta material didaktikoak egitea, zabaltzea eta erabiltzea, baldin eta pertsonak, sexuaren arabera, giza duintasun gutxiago edo gehiago dutela edo sexu-objektu soilak direla adierazten badute, bai eta emakumeen aurkako indarkeria justifikatzen, hutsaltzen edo bultzatzen dutenak ere.
2. Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan erabiltzen diren testuliburuak eta gainerako material didaktikoak honako helburu hauek izan behar dituzte:
Aurreko artikuluko 1. paragrafoan adierazitako hezkidetzak. Era berean, hizkera ez-sexista erabili behar dute, eta irudietan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua eta estereotiporik gabea bermatu behar dute.
- ❖ **36.Artikulua**→Euskal herri-administrazioek, beren eskumenen esparruan, emakumeen aukera- eta tratu-berdintasuna lortzeko baldintzak sustatu behar dituzte. Gizonak benetakoak eta eraginkorrak izatea, bai norberaren edo besteren konturako lana lortzeko baldintzetan, bai lan-baldintzetan, prestakuntzan, sustapenean, ordainketan eta kontratua iraungitzean.
- ❖ **39.Artikulua**→1. Enpresen prestakuntza-planei laguntzak emateko deialdi publikoetan, lehentasuna emango zaie erakundearen barruan emakumeen eta gizonen berdintasuna helburu duten prestakuntza-ekintzei, bai eta emakumeei praktikak egiten laguntzen dietenei ere, batez ere ordezkari txikia duten lanbideetan.
2. Era berean, beharrezko mekanismoak eta laguntza-zerbitzuak ezarri behar dira emakumeek prestakuntza-ekintzetan parte har dezaten bermatzeko, bai besteren konturako lanaren eremuan, bereziki ordezkari txikia duten lanpostuetara eta mailetara iristeko gaitasuna ematen dieten prestakuntza-ekintzetan, bai autoenpleguaren eta enpresak sortzearen eremuan.

2.5. Arabako legeak

Arabako genero auziarekin lotuta indarrean dauden legeak analizatzeko, Arabako Foru Aldundiko Boletinaz baliatu naiz, bertatik, interesgarriak iruditu zaizkidan zenbait artikulua hartuz:

- ❖ **15.3.Artikulua**→Diputazioa eta Udaletxeak, Eusko Jaurlaritzaren gidalerroak jarraituz, berdintasunerako planak eta programak aurrera eraman behar ditu.

- ❖ **15.4.Artikulua**→15.3.Artikuluan izendatzen diren planak baieztatu aurretik Emakunde informatu behar da, edukiaren egokitzapenarekin loturik.
- ❖ **25.Artikulua**→Emakumeen aurkako edozein motatako diskriminazioa ezabatzeko bitarteko politikoak sortu eta jarraitzera konprometitzen da. Konbentzioak 25 artikulua ditu, eta CEDAW Komiteak ebaluatzen ditu, 4 urtean behin.

3. Kapituluak: Gizarte Politikak (Planak, programak eta proiektuak)

Gizarte-zerbitzuek hainbat dispositibo jartzen dituzte behar sozialen arabera, horien artean egonik, genero indarkeriaren biktimen beharrak. Programak, proiektuak eta planak honen baitan antolatzen dira, eta hauek sistema bat osatzen dute, helburu batera bideratutako osotasun batean elkarrekin lotuta eta koordinatuta dauden elementuen multzoa osatzen dute. (Pelegrí, X., 2007)

Autonomia-erkidego guztiek, Euskal Autonomia Erkidegoak kasu, haien Plan Estrategikoak, Plan Orokorrak eta Gizarte Ekintzakoak arautu eta egiten dituzte. Honek Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde bakoitzean (Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia) berezitasunak hartzen ditu, lurralde bakoitzaren behar eta baliabideen arabera. Kasu honetan, Arabako gizarte politikak aztertuzko ditut.

Bukatzeko, kontuan izan behar dugu, planen eta programen finantziazioaren bitartez, gizarte-zerbitzuen politika autonomikoan eragitea lortzen dela. Bigarren estrategia borondatezko koordinazioan datza, printzipioz kontrapartida handiagorik izan gabe. Honen adibide ugari daude eragin eremuaren arabera direnak. (Pelegrí, X., 2007)

Hortaz, hurrengo puntuan genero indarkeriaren biktimei bideratutako Arabako Foru Aldundiko arreta zerbitzuko eskaintzak aztertuko ditugu:

Sektore edota behar ezberdinetara bideratutako zerbitzuak aurkitu ditzakegu, (1) Harreta Zentroak, (2) arreta psikologikoko zerbitzua, genero indarkeriaren biktimei zein gizon erasotzaileei bideratutakoa bereizten dena, (3) orientazio juridikoa emateko zerbitzua eta (4) sexu arazoien ondoriozko edo genero indarkeriaren biktima diren emakumeei zuzendutako arreta eta informazioa emateko zerbitzua ditugu.

(1) Harreta Zentroak:

Harreta Zentroi dagokionean, behar anitzetara bideratutako zentroak aurkitu ditzakegu, lau motetan eginik bereizketa nagusia. Batetik, **(1.1) berehalako arreta zentroa** dugu, kasu honetan, indarkeria matxista jasan duten emakumeei zein haien kargura egon daitezkeen pertsoneri, esaterako, seme-alabak edota pertsona helduak, berehalako ostatu segurua eskaintzen zaie. Denbora muga batez soilik erabili ditzakete zerbitzu hau, baina bertan dauden denboraldian, biktimaren edo biktimen beharren balorazioa egiten da, ondoren

baliabide egokiena bideratu ahal izateko. Aipatzekoa da, egunero 24 orduz zabalik dagoela, urteko egun guztietan.

Bestetik, **(1.2) tarteko egonaldietarako egoitza harrera zentroa** aurkitzen didara, honen helburua, genero indarkeriaren biktima diren emakumeen eta haien kargura dituzten edozein pertsona ostatu eta baimen eskaerak artatzea da, esku hartze espezializatua behar duten kasuetan. Hauek, aldi baterako ostatu gisa funtzionatzen dute, emakume horien zein, esan bezala, haien kargura egon daitezken pertsonen, bizitza normalizatzea erraztuko duen arreta plan integrala prestatzen den bitartean.

Hirugarrenik, **(1.3) haurdun dauden emakumeentzako tarteko egonaldietarako harrera zentroa** dago, kasu honetan, haurdun dauden edota haien kargupean seme-alaba adingabeak dituzten emakumeei bideratua dago. Modu honetan, hauek ostatu eta babes eskaerak artatzen dira. Horrez gain, bazterketa edota babesgabetasun arrisku larrian egotekotan, familia laguntza edota baliabiderik ez badaukate, gizarte eta hezkuntzako neurriak eta neurri psikosozialak eskaintzen zaizkie.

Amaitzeko, **(1.4) harrera etxebizitzaren zerbitzua** jasotzeko aukera dago, hauek harrera zentroetatik atera ahal izateko erabiltzen diren zerbitzuak dira, emakumeen eta haien kargupean egon daitezkeen pertsonak etengabeko laguntza behar duten kasuetan ematen da. Gehienetan, egonaldi laburrak izaten dira, beti ere, indarkeriaren biktima den emakumeak ez baldin badauka etxerik berreskuratzeko eta indarkeria matxista egoera gainditzeko aukerarik eta intentsitate altuko babes neurririk behar ez duen kasuetan. Ahal den heinean, etxebizitza-erakin arruntetan kokatzen dira. Esan beharra dago, ez dutela bertan modu iraunkorrean dagoen langilerik, ez eta haiei berariaz atxikitako langilerik ere, eta, beharrezkoa den kasuetan, kanpoko laguntza egokiak antolatzen direla; oro har, autonomia pertsonal handia dute bertan dauden erabiltzaileak. Gizarte Zerbitzuen Maparen arabera, hurbiltasun handiko zerbitzua da, eta 15.000 eta 50.000 biztanle arteko biztanle-eremuetan kokatu behar da, Gizarte Zerbitzuen Arloekin bat eginez. Hala ere, gaur egun, lurraldeko zentroyen banaketak ez ditu betetzen Gizarte Zerbitzuen Mapan egon beharreko irizpideak.

Aipatutako harrera-zerbitzuen zentroyen eskaintza modu bisualago batean islatzeko, 2015 urtean zegoen egoera irudikatzen duten zenbait taula jarriko ditut:

7. Taula

**Tabla 54. Centros residenciales para mujeres (2.4.6).
Centros, plazas y cobertura del SVSS en 2015, por municipio y titularidad**

Municipio	Centros a 31/12/15			Plazas a 31/12/15			Cobertura (%) ¹
	Municipal	Foral	Total	Municipal	Foral	Total	
Vitoria-gasteiz	1	1	2	12	7	19	0,024
Total Álava	1	1	2	12	7	19	0,019

Notas:

¹ Cobertura: plazas por 100 mujeres de entre 18 y 64 años, incluida la población del Enclave de Treviño.

Fuente INE – Estadística del Padrón Continuo.

Iturria: Arabako Foru Aldundia

2015.urtean Araban Gasteizko Udalaren mendeko berehalako harrera-zentro bat, 12 plaza eskaintzen zituen eta haurdun dauden emakumeentzako zentro bat zeuden, Arabako Foru Aldundiaren mendekoa zena, 7 plazarekin. Bi zentroak Gasteizen daude eta, oro har, 0,019 plaza betetzen dituzte 18 eta 64 urte bitarteko 100 emakumeko.

8. Taula

**Tabla 49. Piso de acogida para mujeres víctimas de violencia doméstica (1.9.1 – tipo 2).
Plazas y cobertura del SVSS en 2015, por Área de SS**

Área de SS	Plazas a 31/12/15			Cobertura (%) ¹
	Municipales	Forales	Total	
Área 1: Ayala	11		11	0,103
Vitoria-Gasteiz	40	9	49	0,063
Total Álava	51	9	60	0,059

Notas:

¹ Cobertura: plazas por 100 mujeres de entre 18 y 64 años. Fuente INE – Estadística del Padrón Continuo.

Iturria: Arabako Foru Aldundia

2015.urtean, 51 plaza zeuden Araban udal-titulartasuneko etxebizitzetan, eta 9 plaza foru-titulartasuneko etxebizitzetan, landa-eremuko 20.000 biztanletik beherako udalerrien premiei erantzuteko. 49 plaza Gasteizen daude, eta 11 Aiarako Gizarte Zerbitzuen Arloan. Estaldura osoa 0,059 plazakoa da 18 eta 64 urte bitarteko 100 emakumeko 27.

(2) Arreta psikologikoko zerbitzua:

Alde batetik, (2.1) genero indarkeriaren biktimei bideratutako arreta psikologikoa dago. Arabako Lurralde Historikoko udalerriren batean bizi diren eta tratatu txar fisiko, psikiko edo sexu erasoak jasan dituzten -berriki edo iraganean- emakumeei eta beren seme-alaba adingabeei laguntza psikologikoa emateko doako zerbitzua da, eraso horien ondorioz, laguntza psikologikoa behar badute. Zerbitzu horiek modu integralean heltzen diete esku-hartze sozioedukatiboko premiei, esku-hartze psikosozialeko premiei eta, hala

badagokio, terapeutikoko premiei, bai eta tratu txarren eta sexu-askatasunaren aurkako ekintza posibleen ondoriozko aholkularitza soziojuridikoko premiei ere, zer eremutan gertatu diren alde batera utzita. Esku-hartze horiek:

-Biktimengana jotzen dute – Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren kasuan, erasotuen guraso-ahalaren edo zaintzaren eta babespearen dauden seme-alabak ere biktima zuzenak direla ulertuta –, bai eta erasotzaileengana ere.

-Eta, bi kasuetan, genero-ikuspegitik eta indarkeriaren biktima diren emakumeen ahalduntzea babesten duen ikuspegi batekin egiten dira.

Aipatutako genero indarkerien biktimei zuzendutako arreta psikologikoaren eskaintza modu bisualago batean islatzeko, 2015 urtean zegoen egoera irudikatzen duen taula bat jarriko dut:

9. Taula:

Tabla 58. Servicios de atención socio-jurídica y psicosocial de las situaciones de maltrato doméstico y agresiones sexuales (2.7.5). Personas usuarias y cobertura del SVSS en 2015.

	S. de atención jurídica	Servicio de atención psicológica				S. de Intervención socio-educativa y de acompañamiento social	Cobertura (%)*
		Mujeres	Menores	Abusos sexuales	Hombres agresores		
Área 1: Ayala	31	45	5	*	0	4	0,249
Área 2: Álava Nordeste	19	34	5	*	2	5	0,307
Área 3: Álava Sur	11	29	4	0	2	11	0,228
Vitoria-Gasteiz	145	486	65	49	53	1	0,326
Total Álava	206	594	79	53	57	21	0,309

Notas:

* Cobertura: personas usuarias a lo largo del año por 100 habitantes, incluida la población residente en el Enclave de Treviño

Iturria: Arabako Foru Aldundia

Aurreko atalean zehaztutako zerbitzuek 1.010 pertsonari eman zieten arreta 2015ean, eta, beraz, biztanleriaren % 0,309k eman zuen zerbitzua.

Beste alde batetik, **(2.2) gizon erasotzaileentzat bideratutako arreta psikologikoko zerbitzua** dago. Senideei (bikotekidea, seme-alabak, ama, etab.) eraso egin dieten edo egiten dieten gizonei zuzendutako doako zerbitzua da; arreta psikologikoa eskaintzen zaie, jokabide oldarkorra alda dezaten. Hortaz, gizarteratze-prozesuaren parte den zerbitzu bezala identifikatu dezakegu aurretik aipatu dudana hau.

(3) Orientazio juridikoa emateko zerbitzua:

Babesgabetasun egoeran aurkitzen diren, genero indarkeriaren biktima dela-eta, emakumeei zuzendutako zerbitzu honek helburu zehatz bat dauka, egoera honetan dauden emakumeei justiziara sarbidea izatea erraztea, hain zuzen ere.

Aipatu beharra da, zerbitzu hau guztiz doakoa dela eta biktima bakoitzak abokatu batekin harremantzeko aukera dauka. Modu honetan, abokatu batek eskubideak babesteko, erreklamazioak izapidetzeko eta doako laguntza juridikoa lortzeko informazioa ematen die tratu txarren kasu guztietan eta sexu askatasunaren aurkako egintzetan, hauek edozein arlotan gertatuak izanda ere. Horrez gain, emakumeei interesekoak diren legezko gaiei buruzko informazioa ematen zaie, batik bat, indarkeria, lan eskubidea edota familiako eskubidea.

Zerbitzu hau eskatzeko modu ezberdinak daude eskura, izan, Arabako Foru Aldundian bertan, hau da, presentzialki, edota, Arabako Foru Aldundiaren egoitza-elektronikoaren bidez.

(4) Sexu arrazoiaren ondoriozko edo genero indarkeriaren biktima diren emakumeei zuzendutako arreta eta informazioa emateko zerbitzua:

Telefono bidez ematen den arreta eta informazio zerbitzua da, hau, sexu arrazoiak direla medio edota genero indarkeriaren biktima diren emakumeei zuzenduta dago. Honela, aipatutako erabiltzaile hauei, informazioa, orientazioa eta laguntza eskaintzen zaie.

Aipatzekoa iruditzen zait, modu anonimoan deitu daitekeela, modu honetan, konfidentziasuna une oro bermatua egongo da, emakumeei modu anonimoan deitu ez duten kasuetan ere bai. Horrez gain, 24 orduko eskaintza dago eta urteko egun guztietan egiten dute lan.

Behin aurreko eskaintza hauek aipatuta, *oinarrizko gizarte zerbitzuak* jasotzeko aukera badagoela ere esatea beharrezkoa ikusi dut. Hauek, Arabako lurralde osoan hedatuak daude, hainbat gizarte arazoren aurrean aholkularitza, laguntza eta arreta eskaintzen dute. Zerbitzu horietan orientazioa eskaintzen da egoera bakoitzerako laguntza eta zerbitzu espezializatu egokien inguruan.

4. Kapituluak: Gizarte Zerbitzu Espezializatuak

Gizarte zerbitzu espezializatuek hitz egin aurretik, gizarte-zerbitzuen nondik norakoak gainetik kokatzea beharrezkoa da. Gizarte-zerbitzuak zerbitzu publikoak eskaintzen dituzte, Estatuaren administrazio publikoaren barruan kokatzen direlako. Honela, gizarte arazoei aurre egiteko tresna bezala ulertu behar ditugu.

Gizarte-zerbitzuak bi mailetan bereizten dira. Alde batetik, gizarte-zerbitzu orokorrak daude, hauek herritar guztiei zuzenduak daude, oinarrizko prestazioak eskainiz. Beste alde batetik, txosten honen funtsa diren gizarte zerbitzu espezializatuak ditugu, prestazio espezifikoko eskaintzen dituztenak direnak, zerbitzu hauek jasotzen dituzten erabiltzaileek haien baldintza

edota egoeratik arreta espezifikoa behar dute, bigarren mailako arreta bezala ere ezagutzen dena.

Beraz, erabiltzaile bakoitzak dituen beharrezan arabera arreta espezifiko bat edo beste jasoko dute, hauek, zentro, zerbitzu programa eta baliabide anitzen bitartez eskaintzen dira eta zentzu honetan, gizarte langileek paper garrantzitsua jokatzen dute.

Gizarte zerbitzu espezifikoek gizarteko kolektibo ezberdinei eskaintzen diete arreta (Aleman, M. C., 1993), horien artean kokatuz, txosten honetan hitz egingo dugun genero problematika:

- Hirugarren adina.
- Haurtzaroa, familia eta gaztaroa.
- Urritasun fisiko, psikiko edota sentsorialak dituzten pertsonak.
- Drogomenpekotasuna duten pertsonak.
- Gutxiengo etnikoak.
- Bazterketa egoeran dauden edo arriskuan dauden pertsonak.
- Jokabide disozialak dituzten kolektiboak.
- Emakumea→Genero indarkeriaren biktimak.
- Beste zenbait kolektibo: etorkinak, errefuxiatuak...

Antolaketari dagokionean, lurralde bidezko sare moduan antolatuak daude gizarte-zerbitzu hauek, deszentralizazio-printzipioari, biztanleguneen ezaugarriari eta artatzen dituzten premien eraginaren arabera. Horregatik, txosten honetan, **Arabako Foru Aldundiaz** jardungo naiz. Lurralde honetan zehazki, hurrengo esparruetan egiten da lan:

- Mendekotasuna duten pertsonak.
- Desgaitasuna duten pertsonak.
- Adineko pertsonak.
- Babesik gabe dauden haur eta nerabeak.
- Gizarteratzea.
- **Genero indarkeriaren biktimak** direnak edota izan direnak.

Arabako Foru Aldundian genero indarkeriaren biktimek **arreta zerbitzu ezberdinak** dituzte, alde batetik, oinarritzko gizarte-zerbitzuak daude, eta beste aldetik, gizarte zerbitzu espezializatuarekin sartuz, hainbat eskaintza daude:

- (1) Sexu arrazoiaren ondoriozko edo genero indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta.
- (2) Arreta psikologikoko zerbitzua.
- (3) Arreta psikologikoko zerbitzua gizon erasotzaileentzat.
- (4) Orientazio juridikoa emateko zerbitzua.
- (5) Harrera zentroak

5. Kapituluak: Gizarte Langileak egiten duten lana

Gizarte-langileak jokatzen duen paper nagusia, instituzioaren eta erabiltzailearen artean zubi-lana egitean oinarritzen da, gizarte-langilea izaten da, normalean. Hala ere, horrek ez du esan nahi eragile bakarra denik. Hori gauza jakina da, eta hortik arazo bat sortzen da gizarte-langile izenarekin, batzuen ustez gizarte-langintza egiten duten guztiei eman behar baitzaie izen hori, eta, beste batzuen ustez, berriz, baldintza akademiko-profesional batzuk betetzen dituenari bakarrik. Baina, esan dezakegu, gizarte-langintzaren eragile nagusia gizarte-langilea dela.

Lehenik eta behin, gizarte langileak garatu beharreko zenbait esparru aipatuko ditut, ondoren zenbait funtzio identifikatuz eta amaieran, gizarte zerbitzu espezializatuen gaian sakonduko dut.

Gizarte-langileak haren lana modu egokian egin dezan, izan hau edozein esparru. Hortaz, gizarte-langileak zenbait ezaugarri garatzea ezinbestekoa da: (1) laguntza, (2) onarpena, (3) indibidualizazioa, (4) ulermena, (5) motibazioa, (6) kontzientziazioa eta (7) trebakuntza. Ideia hauek garatzeko, Lourdes Gaitanen hausnarketak izango ditut oinarri.

- 1. Laguntza:** Asegabe dagoen egoera bat gainditzera bideratutako laguntzaz hitz egiten da gizarte-langintzan dakar. Baina kontuan hartu behar da, laguntza kontzeptua ez dela zerbait ematea bakarrik. Baizik eta, elkarlana bultzatzea da bere eginbeharra, erabiltzaileak gai izan daitezen eskaintzen zaizkion baliabideak bere kabuz erabiltzeko.
- 2. Onarpena:** Onartu egiten da abiapuntua, oraingo egoera, baina lan egiten da etorkizunean egoera hori aldatu daitezen. Gizarte-langileak erabiltzaileak diren

bezalakoak onartu behar ditu, irekitasun jarrera bat izanez.

3. **Indibidualizazioa:** Gizabanako eta talde bakoitza modu desberdinean ulertu beharra azpimarratzen du. Beraz, kasuz kasuko lana egitea ezinbestekoa da, bakoitzaren ezberdintasunei erreparatuz.
4. **Ulermena:** Ezaugarri honek bi alde ditu. Alde batetik, gizarte-langileak bere esperientzia eta jakituria erabili behar du aurrean duen arazoaren ulermen oso batera heltzeko, modu honetan era egoki batean jokatu ahal izateko. Beste aldetik, gizarte-langileak gai izan behar du ulermen enpatikora heltzeko; hau da, gai izan behar du ulertzeko delako arazo hori erabiltzaileak nola bizi duen. Arazoa, beraz, bere ikuspuntutik eta erabiltzailearen ikuspuntutik ulertu behar du.
5. **Motibazioa:** Erabiltzailea animatzeko eta bultzatzeko behar diren argudioak bilatzen jakin behar da. Pertsonak gizarte-langilearengana hurbiltzeko dituen arrazoiak aztertzea komenigarria da.
6. **Kontzientziarioa:** Erralitatearen gaineko jakintza eta interesa izatean dakar, horrek norberarengan edo inguruko gizartean ondorio askatzaileak edukiko dituelakoan.
7. **Trebakuntza:** Gizarte-langilaren papera, Aitzitik, erabiltzaileak trebatzen gai izan daitezten dituzten arazoak euren kabuz konpontzeko bidean oinarritu behar da. Hau da, gizarte-langilea bitarteko bat da, eta ahalegintzen da beharrezko ez izaten.

Aipatutako ezaugarri hauez gain, gizarte-langileak betetzen dituen zenbait funtzio erreparatzea beharrezkoa ikusi dut. Horretarako, Kisnermanen hitzetan, betetzen diren hainbat funtzio aipatuko ditut. (1) Pertsona, talde eta komunitateekiko harreman zuzena, (2) ikerketa, (3) gizarte-politikak, (4) gizarte-zerbitzuen kudeaketa eta (5) talde-lana.

Lehenik, **(1) Pertsona, talde edo komunitateekiko harreman zuzena** izatea dago. Gizarte-langileak, normalean, hiru esku-hartze mailak menperatu behar ditu, eta egoeraren arabera, bata edo bestea erabiltzera derrigortua ikusiko da. Beste alde batetik, **(2) ikerketa** daukagu, esperientziatik teoria garatzean oinarritzen dena. Hirugarrenik **(3) gizarte-politikak** ongizatea lortzeko neurriak planifikatu eta herritarren parte hartzea bideratzean datza. Bestetik **(4) gizarte-zerbitzuen kudeaketaren** ardura dago, programa eta proiektuak burutu, kudeatu eta egikaritzean datza. Bukatzeko, **(5) talde-lanaren** beharra azpimarratu behar da, gizarte-langileok etengabe beste profesionalekin lan egin beharko dugulako, batik batik, psikologoak, administratzaileak, kontsultoreak...

Gizarte zerbitzu espezializatuen aferari eutsiz, esparru honetan lan egiten duten gizarte-langileez jardungo naiz. Hauek izaera hezitzaile eta terapeutikoan oinarritzen dute haien esku-hartzea. Gizarte-langile hauengana iristeko deribazio-prozesu bat ematen da.

Modu honetan langileak, bere eskutan dauden baliabide guztiak eskaini beharko dizkio

beharra duen pertsonari. Hari beretik, kontuan izan behar da, arazo eta behar sozialak ugariak direla eta etengabe aldatuz doazela, baina aldi berean, gizarte-langileek haien eskutan dituzten baliabideak mugatuak dira, eta hauek kudeatzen jakin behar da.

6. Kapituluak: Erabiltzailearen profila

Genero indarkeriaraen biktimen profilaz hitz egin aurretik, nire elkarrizketatuak egindako hausnarketa bat gogora ekarri nahiko nuke, puntu bateraino oso baliogarria iruditzen baitzait. Haren hitzetan, erabiltzaileen profil bat eraikitzea oso arriskutsua izan daiteke. Azken finean, kontuan izan behar dugu egun bizi garen gizartean, estereotipoek indar handia dutela eta modu nabarmen batean eragiten duten gizakion pentsamenduan.

Horregatik, erabiltzaileen profil zehatz batez hitz egiteak zenbait arrisku ekar ditzake, batez ere, genero indarkeriaren biktimak emakume konkritu batzuen profiletara mugatu baitaitezkelako. Honek, arazoak ekar dakioke bai emakume horiei, etiketa horien barruan edo kanpoan kokatuz, bai gizarte osoari, arazo soziala gainditzeko oztopo bat baitira estereotipoak.

Behin hau esanda, Arabako Foru Aldundiko gizarte langilearekin izandako elkarrizketa zein nire diagnostikoa egiterako garaian esanguratsuak iruditu zaizkidan zenbait datu plazaratuko ditut.

Hasteko, kontuan izan behar da, indarkeria matxistaz hitz egiten dugunean, askotarikoa izan daitekela, hau da, indarkeria matxistak mota edo forma asko ditu. Honen baitan, esparru honetako erabiltzaileen profila eraikitzeko, indarkeria mota ezberdinak eta adin-tarte ezberdinak aipatuko ditut. Argi izan behar da, profil hau Arabako Foru Aldundiko datuen arabera dela.

Gazteriari dagokionean, 18 urtetik beherakoak zein 18-30 urte bitartekoek, gehien bat sexu-askatasunarekin loturiko indarkeria pairatzen dute. Jarraiki, 18 urtetik beherakoek, familia barruko indarkeria ere maila handi batean pairatzen dute eta 18-30 urte bitartekoek bikotekide edo bikotekide ohiaren partetik ere indarkeria maila altu batean jasaten dute. Gainera, gizarte-langileak elkarrizketan aipatutakoaren arabera, gazteen artean genero indarkeriaren espresioek gora egin dute.

Beste alde batetik, pertsona helduagoei erreparatzen badiegu, hau da, 30-50 urte bitarteko emakumeei, gehien bat, bikotekide edo bikotekide ohiaren partetik jasaten dute indarkeria, honi jarraituz, familia barruko indarkeria egonez eta amaitzeko sexu askatasuna.

Amaitzeko, 50 urtetik gorako emakumeek, familia barruko indarkeria jasaten dute gehien, ondoren bikotekide edo bikotekide ohiaren partetik jasotako indarkeria eta amaitzeko sexu askatasunarekin erlazionatua dagoena.

7. Kapituluak: Ebaluaketa

Behin txostenaren puntu gehiengoa osatuta eta Arabako Foru Aldundiko gizarte-langilearekin elkarrizketa burututa, beharrezkoa da, jasotako informazio eta datuen analisi sakon bat burutzea. Horretarako, aipaturiko datu zein informazioak, zenbait gogoeta eta hausnarketa erabiliko ditut.

Genero indarkeriaren auzia analizatzerakoan, agerian gelditzen da, emakumeak babesgabetasun egoera batean aurkitzen direla egungo gizarte ereduaren. Jasaten duten indarkeriari aurre egiteko zenbait modu dauden arren, horien artean kokatuz, gizarte-zerbitzuetan ematen diren eskaintzak, oraindik ere gabezia handiak aurki ditzakegu. Gainera, zentzu honetan ere, aipatzekoa iruditzen zait, Maitenak, Arabako Foru Aldundiko gizarte-langileak prebentzio lanarekiko egiten duen gogoeta, berarekin bat natorrelako, esparru honetan oraindik ere gabezia handiak daudela aipatzen duenean.

Hari beretik, garrantzi handikoa iruditzen zait ere, elkarrizketan behin baino gehiagotan ateratako gaia, gizarte-arazoaren eraldaketarena hain zuzen ere. Aipatzekoa da, gizarte kapitalista etengabeko berrantolaketa prozesu batean murgilduta dagoela, are gehiago, egun bizitzen ari garen krisi testuinguru honetan, beraz, bide honetan ere, honen baitan egikaitzen dira gizarte-arazo eta beharizanak aldatuz doaz.

Hau ulertuta, nire iritziz, gizarte-zerbitzuak eta hortaz, gizarte-langileon lana ere, etengabeko eraldaketan egon behar dela deritzot, beti ere, gizarte-beharren baitan antolatuz. Egindako txosten honetan, zentzu honetan gabezia nabarmen bat sumatu dut. Elkarrizketatuak esan bezala, indarkeria forma berriak garatzen direlako, eta hauek gero eta gehiago sartzen ari dira gazteen bizi ohitura eta kultuan.

Ebaluaketarekin amaitzeko, azpimarragarria iruditzen zait, genero indarkeriaren esparruko informazioa lortzeko nahiko erraztasun aurkitu ditudala, batez ere, txalotzekoa bide honetan, Emakunde, Emakumeen Euskal Erakundeak, betetzean duen ezinbesteko papera. Genero problematikaren inguruko datuak emateaz gain, hauei aurre egiteko dauden programa ezberdinak azaleratzeko lan aparta egiten duelako.

8. Kapituluak: Gomendioak

Gomendioak burutzerako garaian, azpimarratu nahiko nuke, ebaluaketan identifikatutako hainbat gabeziak hitz egingo dudala. Horretarako, berriz ere, Arabako Foru Aldundiko gizarte langileak elkarrizketan emandako informazioa eta iturri bibliografiko ezberdinetatik jasotakoa erabiliko dudala.

Hasteko, gizarte-langileak behin eta berriz errepikatu duelako eta txostena egiterako garaian, dauden beharrak eta honen aurrean dauden planak, programak zein proiektuak guztiz deskonpensatuak direla argi ikusi dudalako. Gizarte-arazo honek hartzen duen dimentsiorako

ez baitaude nahikoa eskaintza. Beraz, zentzu honetan, arduraz jokatzeari eta esparru honetan lan sakonago bat burutzea gomendatuko nuke.

Gabeziekin jarraituz, aurretik ere aipatu dudana, prebentzioaren auziari eutsiko diot, bat natorrelako esparru honetan lan egiten duen gizarte langileak esandakoarekin, hau da, prebentzio lanak garapen handiago bat behar duela deridalako. Batez ere, diagnostikoa egiterako garaian, zein gizarte politikak aztertzerako garaian, agerian gelditu da, prebentzio lan minimoa egiten dela esparru honetan. Egiten den lana, gehien bat, erasoak gertatu ondorengo egoera kudeaketara oinarritzen direlako.

Horrez gain, ebaluaketeren amaieran eutsitako gai berdinari eutsiko diot. Garrantzi handikoa iruditzen zaidalako, gizarte kapitalistan eta bereziki, ematen ari den modernizazio prozesu honen baitan, honen barruan ematen ari den, digitalizazioarekin, sare sozialen garapenarekin... genero indarkeriaren biktimek jasaten dutena identifikatzen jakitea eta honi aurre egiteko forma berriak garatzea ezinbestekoa da.

Horregatik, nire gomendio nagusia bide honetatik doala deritzot, finean, gazte belaunaldia zuzenean eragiten duen esparrua delako eta gazteria delako etorkizuneko norma kulturala barneratuko duena. Hau da, egungo emakume gazteek normaltzat jo ditzakete indarkeriaren espresio hauek eta etorkizunean norma bilakatu daitezke.

Horregatik, hurgentzia handiz landu beharreko gaia dela deritzot. Berezi, aurretik aipatu dudana prebentzioaren auzitik. Horrez gain, teoria eta praktikan lanketa sakonagoa burutzea gomendatuko nuke. Modu honetan ere, gizarte politikak garatzeko lehen pausuak emango dira.

Bukatzeko, elkarrizketan gizarte langileak Arabako landa eremuan dagoen gabezia gainditzeko pausuak modu serioago batean garatzeko gomendioa emango nuke. Gehien bat, gizarte langileak aipatutakoaren arabera, soilik lehen pausuak eman direla ulertzen dudalako. Agerikoa baita, landa eremuan gizarte zerbitzuak garatuak ez egoteak ez duelako esan nahi genero indarkeriaren espresioak ematen. Hortaz, zentzu horretan, eta beti ere, testuingurua ulertuz, aurrera pausu handiak beharrezkoak direla azpimarratzen dut.

9. Kapituluak: Konklusioak

Txostenari amaiera emateko, ikerketa osoan zehar burura etorri zaizkidan zenbait gogoeta planteatuko ditut. Ondorioari heltzeko, lehenik eta berrin, hasiera batean planteatutako hipotesiak berriz ere azaleratuko ditut, esandakoaren arabera, genero indarkeriaren esparruan gizarte zerbitzuetan oraindik ere garapen bat behar zela pentsatzen nuen. Berezi, prebentzio lanaren esparruan, prebentzio erreal bat lortzeko aukera izatetik urrun dagoela aipatu nuen.

Zentzu honetan, aipatzekoa iruditzen zait, zenbait esparruetan espero nuen baino garapen handiago bat aurkitzeko aukera izan dudala, batez ere, harreta zentroei dagokionean, oso interesgarria iruditzen zait.

Aipatzekoa iruditzen zait, txostenaren hasieran hipotesian prebentzioaren auziaz ere hitz egin nuela, gabezia nabarmen bat aipatuz. Txostenarekin aurrera egin ahala, batez ere, diagnostikoari dagokionean eta Arabako Foru Aldundiaren gizarte-langileriarekin izandako elkarrizketari dagokionean, oraindik ere prebentzioaren auzian gabezia handi bat somatu dut, hasiera batean irudikatzen nuena baino are arriskutsuagoa iruditzen zaidana. Nire iritziz, prebentzioaren auzia garrantzi handikoa da.

Horregatik, esparru honetan sakontasun gehiago izatea gustatuko litzaidake. Horregatik, gizarte-langileok zentzu honetan betetzen duten ezinbesteko paperaz hitz egin nahiko nuke, “La figura de la persona profesional del trabajo social es clave en la lucha contra la violencia de género. Partiendo de que el nivel preventivo es fundamental en esta lucha, las personas profesionales del trabajo social tienen una responsabilidad fundamental en la dinamización de un trabajo con toda la comunidad. Entendiendo el trabajo social como una acción social comunitaria donde participan diferentes personas profesionales y otros agentes de la comunidad, así como los niños, las niñas, los y las adolescentes, los y las jóvenes, las familias, etc.” (Elboj, C. eta Ruíz, L. 2010).

Aipatzekoa iruditzen zait, Elboj eta Ruizen testu honen bitartez, prebentzioaren inguruko ikuspegi zabalago bat lortzea lortu dudala, gehien bat, prebentzioaren beharra azpimarratzeko balio izan dit. Azken finean, prebentzioaren auziak ez baitie soilik eragiten genero indarkeria jasaten duten emakumei soilik, baizik eta genero indarkeriaren inguruan dauden pertsona guztiei, izan hauek, haurrak, nerabezeroak...

Horregatik, beharrezkoa ikusten dut ikerketaren auzia esparru honetan, honela, indarkeria matxistaren nondik norakoak ezagutzeko aukerak izango ditugu eta modu honetan ere, gaia sozializatzeko ezinbesteko garrantzia azpimarratu dezakegu. “en la importancia de trabajar los procesos de socialización que llevan a esa violencia de género desde una socialización preventiva de la violencia de género” (Elboj, C. eta Ruíz, L. 2010).

Azken finean, prebentzioaren eta sozializazioaren bitartez, gaia inoiz baino gehiago mahaigaineratzeko aukera izango dugu. Modu honetan, gutxinaka-gutxinaka genero indarkeriari aurre egiteko tresnak garatzean aurrerapenak eginez.

“Las investigaciones remarcan la necesidad de incidir en los procesos de socialización que llevan a que se sienta una atracción por la violencia. Esta relación es producto de procesos de socialización que incluyen la valoración positiva de modelos de atractivo que son violentos, es decir, que se valora como hombre atractivo aquel que ejerce el poder y dominación sobre otras personas. En cambio no se le da un valor social y, por lo tanto, no son atractivos los que tienen valores igualitarios y de respeto” (Elboj, C. eta Ruíz, L. 2010).

Laburbilduz, genero indarkeriaren biktimei babesa eskaintzeko aukera paregabea eskaintzen digu prebentzioak, eta oraindik ere auzi honetan aurrera pausu ugari falta zaizkigu. Hortaz, ezinbestekoa dugu, bide honetan pausuz pausu lan egitea.

Ondorioekin amaitzeko, aipatu nahiko nuke lan hau oso baliagarria iruditu zaidala bai gizarte zerbitzu espezializatuak bai zehazki, genero auzia sakonago ezagutzeko. Gainera, ikerketaren eta elkarrizketaren lan-tresnari dagokionean, ikasketa prozesu sakon bat izateko aukera izan dudala deritzot.

10. Kapituluak: **Bibliografia**

- Aleman, M. C. (1993). *Una perspectiva de los servicios sociales en España*. Hemendik eskuratua:
https://rua.ua.es/dspace/bitstream/10045/5870/1/ALT_02_12.pdf
- Araba. Foru Aldundia (2017). *I-Juntas generales de Álava y administración foral del territorio histórico de Álava*. BOTHA. Hemendik eskuratua:
https://www.araba.eus/botha/Boletines/2017/003/2017_003_04670_C.pdf
- Araba. Foru Aldundia (d/g). *Gizarte Zerbitzuak*. Hemendik eskuratua:
<https://web.araba.eus/eu/gizarte-zerbitzuak/zerbitzuak>
- Arabako Foru Aldundia (2016). *Mapa de Servicios Sociales del Territorio Histórico de Álava 2016-2019*.
- Bretcha, Albert (2021). *La violencia de género, en gráficos: 1.118 mujeres asesinadas en el Estado Español desde 2003*. Noticias de Alava. Hemendik eskuratua:
<https://www.noticiasdealava.eus/actualidad/sociedad/2021/11/25/cifras-violencia-genero-graficos-1118/1143613.html>
- Díaz, M. P. (2013). *La directiva 2011/99/ue del parlamento europeo y del consejo de 13 de diciembre de 2011) sobre la orden europea de protección: su aplicación en España a las víctimas de violencia doméstica y de género*. Universidad de Guanajuato. Hemendik eskuratua:
https://idus.us.es/bitstream/handle/11441/17341/file_1.pdf?sequence=1

- Egoitza.araba.eus (d/g). *Genero indarkeriaren biktima diren emakumei doako arreta juridikoa emateko zerbitzua*. Arabako Foru Aldundia.
<https://egoitza.araba.eus/eu/-/pr-servicio-de-atenci%C3%B3n-jur%C3%ADdica-gratuita-a-mujeres-v%C3%ADctimas-de-violencia-de-g%C3%A9nero>
- Emakunde (2019). *Emakumeen aurkako indarkeriaren eragina. Datuen aurrerapena (EAE, 2019)*. Hemendik eskuratua:
https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_evaluacion_informes/eu_def/adjuntos/2019.indarkeria_intzidentzia_datuen_aurrerapena.pdf
- Emakunde (2021). *Emakumeen aurkako indarkeriaren ondorioz eraildako emakumeak. 2002-2020 urteak*. Hemendik eskuratua:
https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_evaluacion_informes/eu_def/adjuntos/eraildako_emakumeak_2002_2020.pdf
- Emakunde eta Eusko Jaurlaritza (2020). *Estatistikak. 2020*. Gasteiz. Hemendik eskuratua:
https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_evaluacion_informes/eu_def/adjuntos/estadistikak.2020.12.pdf
- Emakunde eta Eusko Jaurlaritza (2020). *Estatistikak. 2020.03.16-31*. Gasteiz. Hemendik eskuratua:
https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_evaluacion_informes/eu_def/adjuntos/estadisticas.2020.03.16-31.eus.pdf
- Elboj, C. eta Ruíz, C. (2010). *Trabajo social y prevención de la violencia de género*. Hipatia. <https://revistaseug.ugr.es/index.php/tsg/article/view/912/1050>
- García, C. (2019). *Miscelánea. “MINIPILDORAS de consulta rápida. Manual para residentes y médicos de familia”* liburuan. (89-108.or). Madrid: MEDGEN S.A. Hemendik eskuratua:
https://semg.es/archivos/ebook_minipildoras_semg.pdf#page=88
- Galtung, J. (2003). *Bortxakeria kulturala*. Gernika Sarea. Hemendik eskuratua:
<https://www.gernikagoratzuz.org/eu/portfolio-item/bortxakeria-kulturala-galtung/>
- ITAIA. Emakume Sozialisten Antolakundea (2019). *Genero problematikaren hausnarketa eta aurrera begirako erronkak*. Hemendik eskuratua:
<https://itaia.eus/wp-content/uploads/2019/11/Salda-Badago-Ponentzia.pdf>
- Jefatura del Estado (2004). *Ley Orgánica 1/2004, de 28 de diciembre, de Medidas de Protección Integral contra la Violencia de Género*. BOE: Legislación Consolidada. Hemendik eskuratua:
<https://www.boe.es/buscar/pdf/2004/BOE-A-2004-21760-consolidado.pdf>

- Jefatura del Estado (2004). *I.Disposiciones Generales. Comunidad Autónoma del País Vasco*. BOE: Legislación Consolidada. Hemendik eskuratua:
<https://www.boe.es/boe/dias/2011/11/14/pdfs/BOE-A-2011-17779.pdf>
- Lorenzo, P. (2005). *La violencia de género en la ley integral. Valoración político-criminal*. Revista Electrónica de Ciencia Penal y Criminología. Hemendik eskuratua:
<http://criminnet.ugr.es/recpc/07/recpc07-08>
- Pelegrí, X. (2007). *El modelo de servicios sociales en España*. SOCIOTAM: Revista Internacional de Ciencias Sociales y Humanidades. Hemendik eskuratua:
<https://www.redalyc.org/pdf/654/65417206.pdf>
- Rico, N. (1996). *Violencia de Género: un problema de derechos humanos*. Serie. Mujer y desarrollo. Naciones Unidas eta CEPAL. Hemendik eskuratua:
https://repositorio.cepal.org/bitstream/handle/11362/5855/S9600674_es.pdf?sequence=1&isAllowed=y

11. Kapituluak: Eranskinak

11.1. Elkarrizketaren transkripzioa

Sarrera:

Egun on! Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkizut elkarrizketa hau burutzeko prestutasunagatik eta hortaz, nire analisiarekin laguntzeagatik. Gizarte Langintza Graduko 3.mailako ikaslea naiz eta Gizarte Zerbitzu Espezializatuak irakasgairako genero indarkeriaren biktimekin Arabako Foru Aldundian egiten den lana aztertzea erabaki dut. Horregatik, esparru honetan lan egiten duen gizarte-langilea zaren heinean, elkarrizketa honen helburua lanaren nondik norakoa azaltzea izango da.

Maitena: Oso ondo. Eskerrak zuri lanagatik.

Galderekin hasi aurretik aurkeztu gaisetuk zure burua.

Maitena: Beno ba, egun on. Ni Maitena naiz, bertakoa, Gasteizkoa, eta Arabako Foru Aldundian lanean nabil orain dela 7 bat urte. Lehenengo urtean, batez ere, babesgabetasun egoeran dauden haur eta gazteekin egin nuen lan, bereziki, esparru horretan zegoen beharragatik, eta aldi berean, sail honetan langile aldetik zeuden hutsuneagatik. Ondoren, hortik pare bat urtera esango nuke nik, emakumeei bideratutako sailean hasi nintzen lanean, zuk esan bezala, genero indarkeriaren biktimekin hain zuzen. Oraindik ere, bajak eta ez bajak (barreak) lanean jarraitzen dut genero sailean.

Ondo ba, galderekin hasiko gara. Edozein zalantza edo ekarpen galderekin bota lasai.

Galderak:

1. Zein ikasketa burutu behar izan dituzu egun daukazun lanera iristeko?

Maitena: Gizarte lana egin nuen diplomatura, orain dela urte dexente jada, gero master bat egin nuen, batez ere, familia, haurrak eta gazteez eta zentzu honetan, emakumez jardunez. Eta geroztik, lanean asi nintzen, ondoren parora eta orain dela 4 urtetatik hemen nabil lanean. Aipatu beharra dut ere, lanean nagoela, etengabe ikasketa prozesu batean murgilduta nagoela, azken finean, beharrezkoa ikusten dudalako eh, ba kursilloak, hitzaldiak... eginez. Denborez motz uzten zaitu lanaldi honek baina ahal den heinean aurrera noa ere zentzu honetan.

2. Nola ikusten duzu genero indarkeriaren biktimak diren edo izan diren pertsonen egungo egoera?

Maitena: Buf, sinesgaitza, esango nuke sinesgaitza. Genero indarkeriaren gaia nonahi entzuten den gaia da, baina zuzenean indarkeriaren biktima izan direnekin lan egiten dugunok errealki ikusten dugu honek daukan dimentsioa. Egunez egun, emakumeen aurkako indarkeriaren hamarnaka kasu ikusten ditugu, eta egungo egoera ba... aipatzekoa da, genero indarkeriaren esparruan gazteen arteko biolentziak gora igo duela modu oso oso esanguratsuan. Kasu honetan, gehien bat sexu-indarkeriarekin lotzen da auzia, baina bikote edo bikotekide ohiaren partetik maltratuak jasaten dituzten gazteak ere gero eta gehiago daude, eta esango nuke, gero eta gazteagoak direla gainera.

Gero, pertsona helduagoei erreparatzen badiogu, maltratu domestikoa da geheien nagusitzen dena, esango nuke 35-55 urte bitarteko emakumezkoetan eman daitekeela gehien bat. Eta noski, gero haurrak edo beno, orokorrean, seme-alabak beti ere genero indarkeriaren biktima bezala konsideratzen ditugu ezta? Zuzenean eragiten dielako kasu askotan, eta beste askotan, ba zeharka, amaren partetik.

3. Aipatutakoa kontuan harturik, zein egoera ikusten duzu gizarte zerbitzuei esparru honetan?

Maitena: Nahikoa inoiz ez da, errekurtsio asko daude eta batez ere gure atalean asko ditut laguntzeko, baina, egia da, gauza askotara ez garela heltzen eta gizarte mailan ere ez. Agerikoa da hau, ba aurretik esandakoarekin ez? Zerbitzu anitzak eskaintzen dira erasoei aurre egiteko, prebentzio lana ere badago, baina... Beno, genero indarkeriak gure artean jarraitzen du. Gizartea ez da zerbait estatikoa gainera, orain dela 20 urtetik hona genero indarkeriak milaka aldaketa jasan ditu, gazteen artean ikus ditzakegu adibide argienak ez? Sare sozialen bidezko indarkeria, jai-giro ezberdinak... Hortaz, baliabideak momentuko beharen arabera antolatzen dira, ez da erraza.

Gainera, hemen Araban, berezitasun bat dagoela esango nuke, ba esaterako, horrela gertutik ikusten ditugun Gipuzkoa eta Bizkaian gertatzen ez dena. Ba hori, Araban landa eremu handia dago, Gasteiz kenduta, hiriburua dena, gainerakoa, gehien bat, herri txikiak dira, batzuk oso txikiak, eta bertara iristeko zailtasun handiak daude. Hala ere, azken urteetan, landa eremurako planak abiatzen saiatu gara, aurrera pausu minimo batzuk ematen joateko. Azkenean, Gasteizen bertan, eskaintza zabala dagoela esan dezakegu, landa eremuan ordea...

ba esan bezala ez, kontrakoa.

3. Zuk esan bezala, azken urteetan aldaketa nabarmenak eman dira genero indarkeriaren esparruan, azaldu pixkat zentzu honetan ikusi dituzuen aldaketak. Batetik, modernizazio honekin, teknologiaren aurrerapena, sare sozialak... eta bestetik, pandemia testuinguruan.

Maitena: Ba aurreko galderan esan dudan bezala azken urteetan, esango nuke bereziki, azken 5 urteetan edo, garapen handi bat eman da teknologiaren munduan, honek dakarren guztiarekin, digitalizazioa, argazkiak, bideoak, pornografia... eta baita ere, sareen munduan, gazteen artean batez ere, Instagram, Twitter eta horrelakoen erabilera oso handia da, eta honek, noski, haien bizitzetan eragina duen heinean, haiek eragin eta pairatzen duten indarkerian ba ere badu. Zentzu honetan, indarkeriak beste hamarnaka forma hartzen ditu: *ciber-jazarpena*, eduki pornografikoaren salerosketa, bikotekidearekiko kontrol izugarria...

Beste aldetik baita, eta de hecho, esango nuke loturik daudela hein handi batean, Covid-19 birusaren auzia daukagu indarrean gure gizartean. Bide honetatik gehien bat esan dezakedana da, asko baina izugarri zaildu izan duela eta oraindik ere zailtzen duela pandemiak ekarritako egoera guzti hau gure lana, gizarte-langileon lana. Adibide batzuk jartzearren, argiena nire ustez lehenengo konfinamenduan bizi izan genuen egoera da ez, denok etxean, den-denok noski, hau da, genero indarkeriaren biktimak haien erasotzaileekin etxean giltzapetuak, ezin atera, eta ez hori bakarrik, esaterako gure telefonozko arreta zerbitzura deitzeko ezintasun edota zailtasun handiekin. Dei asko jaso genituen, batzuk, ezer esan gabe telefonoa utzi zutenak, beste batzuk, gizonak hartu eta gezurra dela esatea... Buf zelako egoerak ekarri dituen Covid-19 honek (...).

4. Ze eraldaketa eman da genero indarkeriaren biktimen inguruko eskaintzan? Azken hamarkadari erreparatuz gero, gehien bat.

Maitena: Esango nuke nik arreta emateko funtzionamenduan, iraganean forma hospitalariagoa hartzen zuela esango nuke nik, eta hori aldatu egin da, kasuz kasuko lanean gehiago zentratu garela esango nuke, honekin zer esan nahi dut? Ba emakume edota familia bakoitzak behar batzuk ditu, inguru-sozial bat... eta kasu bakoitzean usuario bakoitzari egokitu behar gara noski, arazo soziala da baina pertsona bakoitzak ezberdin bizi eta jasatendu. Orokorrean, gabezia askori aurre egin diegu azken urteetan, eraldaketa inportante bat egon dela esango nuke. Honek ez du esan nahi, noski!, gabeziak ez ditugunik egun, asko esango nuke, baina beno gutxinaka hauek identifikatu eta konpontzen saiatzen gara, ez?

Bide honetan ere, bueno, hau aipatuko dut nik gehien bat bideraketa hau egiten lan egiten dudalako, harreta zentro ezberdinekin. Kapazitatea modu esanguratsu batean hobetu dela deritzot, honek ez du esan nahi bakarrik plaza kopurua igo denik, baizik eta harreta zentroetan ematen den kalitatea igo egin dela. Orokorrean, genero indarkeriaren biktima diren emakumeei bideratutako harreta zentroak ez dira esaterako, MENAk dituzten harreta zentroen berdinak, gure kasuan, ez dute profesionalen hainbesteko presentzia edo (...) behar. Baina bai hauen atzean lan handia dagoela. Gero eta gehiago, eskerrak, (...) arazoa egon badagoelako, laguntza gehiago da behar dena.

5. Nire txostena burutzerako garaian, emakumeen aurkako indarkeriarekin lotutako hainbat lege ezagutu eta analizatu ditut. Lege anitzak daude, baina ze funtzio betetzen dute hauek?

Maitena: Argi dago legeak funtzio garrantzitsu bat betetzen dutela, eskubideak izendatzen dituztelako, baina nire iritziz, ez da nahikoa, eskubideak subjektiboak dira, baina gero hauek egingarri bihurtu behar dira. Ulertzen nauzu? Esan nahi dudana da, legeak egon badaude, eta garrantzi handikoa da bertan egotea, horregatik ere, borrokan gaude, legedi feminista bat eraikitzeko bidean. Baina nolabait esatearren, eskaintzen duten babeserlatiboa dela esango nuke. Orokortasun bati erantzuten diote, baina lehen aipatu dizut ere, kasuz kasu lan egiteak ezinbesteko garrantzia dauka. Baliabideak, gaitasunak, errekursoak... ezinbestekoak ditugu, legeez gain.

7. Baudaukazuen eskaintzan edo pixkat zentratuz, Araban indarrean dituzuen programak, planak eta proiektuak nahikoak direla uste duzu?

Maitena: Nahikoak (...) ez. Esango nuke, nahikoa ez dela inoiz, behintzat orain emakumeen aurkako indarkerian dauden biktima kopuruarekin, eta hori noski, ezagutzen ditugun kasuak direla kontuan izanda. Beraz, faltak beti egongo dira, beti egongo da zerbait hobetzeko edo aldatzeko. Hutsuneak eremu guztietan aurkitu daitezkeela esango nuke, baina gehien bat, prebentzioaren auziari dagokionean hutsune handia dagoela esango nuke. Ehundaka programa, plan... egin ditzakegu, hauek aurrera atera daitezten indar guztiak jarri, baina genero indarkeriak prebentzio lana egin ezean hor jarraituko.

Bai aipatzekoa, lehen esandakoaren hari beretik, Araban lan handia egiten dela Gasteizen baina landa eremuan oraindik ere gabezia handiak daudela, baita ere programak, planak eta proiektuak pentsatzeko eta hauek aurrera eramateko garaian.

8 Zein pertsonak jotzen dute gizarte zerbitzuetara laguntza bila? Biktinek, familiarrek edo ingurukoek, beste batzuk...

Maitena: Genero auzian esango nuke nik barietate izugarria dagoela! Gehienetan usuarioek beraiek, hau da, erasotuek beraiek deitzen gaituzte edo laguntza bila datoz, baina normalean hau limite egoeratan gertatzen da, egoera oso oso gogorrera iristen direnean batez ere. Beste alde batetik ere, askotan familiako edo inguruko kideek jakinarazi izan digute laguntza horren beharra, ba gurasoek, anai-arrabek, lagunek... Hala ere, esango nuke, kanpotik indarkeria matxista identifikatzea gertuko pertsona batek sufritzen duenean batez ere, oso zaila dela. Bukatzeko, badira kasuak ba denetarikoak, non, bizilagunek deitu gaituzten, kalean eraso bat ikusi izan duten pertsonak...

9. Zein esango zenuke dela erabiltzailearen perfil ohikoena?

Maitena: Galdera zaila, oso zaila esango nuke (barreak). Nire ustetan, ezin da erabiltzaileen perfil bat eman, de hecho, esango nuke, oso problematikoa izan daitekeela hori. Gero estereotipo ugari eraikitzen direlako emakume hauen baitan, hamaika entzunak gara gizarte langileak (barreak), denak atzerritarrak direla, ahulak, etxeko-andreak... Ez dakit, ez dakit.

Bai aipatu dezakedala, aurretik esan dizudan moduan, genero indarkeriak mota ezberdinak dituela, eta adinaren arabera, mota bat edo beste nagusitzen dela. Ez dut asko errepikatu nahi baina... (barreak) gazteen artean, bereziki, sexu-indarkeria nagusitzen da, gero, emakume helduagoen artean, esango nuke 35-55 urte bitarte, bikotekide edo bikotekide ohiaren indarkeria nagusitzen da, beno hemen gazteak ere kokatuko nituzke, eta bukatzeko, familia barruko indarkeriari dagokionean, emakumeen partetik ere 35-55 adin tartea egongo litzake

eta haurrak, hau da, seme-alabak, esparru honetan ere, hirugarren adinako emakumeak egon daitezke, 70-80 urteko amak gehien bat, haien semeengatik erasotuak direnak.

10. Nola ebaluatzen dituzu erabiltzaileen egoerak eta zein zerbitzu behar duten?

Maitena: Beno, esan dizudan moduan, nik gehien bat harreta zentroen aferan lan egiten dut, hortaz, zerbitzu horren barruan dauden eskaintza ezberdinak baloratzen ditut, badaudelako denboraldi baterakoak edo epe luzerakoak. Azkenean, udaletik baloratu eta bideratzen dute emakume edo familia bakoitzak behar duen zerbitzua. Bertan, egiten da diagnostikoa eta azaltzen diete dauden errekurtsoak, eta beraien egoerara egokitzen diren ala ez ere azaltzen dituzte. Hala ere, askotan udaletik egin den balorazioarekin ez nator bat edo ezberdintasun batzuk baloratzen ditut eta hor ba dena edo zati bat birpentsatuko nuke.

11. Amaitzeko, ze o zer gehiago gehitu nahiko zenuke? (Hausnarketak, gabeziak...)

Maitena: Ba ea, esango nuke (...) zuk aipatutako gabeziak, beti daudela, hala ere zentzu honetan egiten dudadn hausnarketa litzake, gabeziak beti egongo direla jakin badakigunez, ezinbestekoa dela gizarte-langintzaren esparruan etengabeko eraldaketa egotea, ba esan bezala, gizarte-arazoak behin eta berriz aldatzen direlako, horren barruan kokatuz noski, genero indarkeriaren gaia.

Horrez gain, aipatzea, poztasun handia ematen didala, gizarte langile berriak eraikitzeko prozesu horretan oraindik ere genero indarkeriaren auzian interesa egotea. Lan handia daukagulako oraindik ere!

Amaiera:

Bueno Maitena, ba bukatzeko, berriz ere, eskerrak eman nahi dizkizut zure denbora eskaintzeagatik eta nire txostena egituratzeko eta analisisa burutzeko edukia egiteko.